



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 1ean

47 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Castejonon bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Zolia eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jardueri dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erazteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- Etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (49. or.).
- Indarrean dagoen etxebizitzaren ondarearen eraginkortasun sozialari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (52. or.).
- Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- Herritarraren interesak aintzat hartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (55. or.).

F saila:
GALDERAK

Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1997. urteko maiatzaren 21ean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritzako Egituren Zerbitzuan sartu zen Tafallako Lurzati Antolamendurako eskaria, Tafallako Udaleko alkateak izenpetuta eta Nekazaritzako Azpiegiturak Eraberritzeko 18/1994 Foru Legean xedatuta dagoenarekin bat etorritz.

Bideragarritasun-azterlanaren idazkuntza, zona horretako prospekzio arkeologikorako azterlanaren erantzunaren zain dago.

Lurzati Antolamenduaren onespena, dagokion foru dekretuaren bitartez, 1998. urtearen amaierarako aurreikusita dago.

149 izan dira Lurzati Antolamendua eskatu duten jabeak, eta herri-ondasunak ere sartu dira, Tafallako Udalak 1997. urteko apirilaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

Eskaria egin dutenek ekarri duten azalera guztizko azaleraren % 67,1 ordezkatzeko du, eta beraz, Nekazaritzako Azpiegiturak Eraberritzeari buruzko 18/1994 Foru Legeko 17. artikuluen a) ataleko 1. puntuan eskatzen den baldintza betetzen da.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Uztailaren 10eko 1486/1998 Errege Dekretuak (1998ko uztailaren 11ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 165. zkia.), esne-alorraren eraberritze eta hobetzeari buruzkoa, autonomia erkidegoen — “Kantauriko erlaitza” taldekoak bereziki, Nafarroa barne, beraz— eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioaren arteko lankidetzaren ondorioz sortua, esne-ekoizpena uzteagatik kalteordainak ordaintzeko plan nazional bat aurreikusten du, eta plan honetan egoki irizten dioten autonomia-erkidegoek hartuko dute parte, hitzarmenen bidez.

2.- Errege Dekretu horren arabera, aurtengo kanpainan 75.000 Tm erosiko dira gehienez ere, autonomia erkidegoen arteko banaketa eskabideen arabera egingen da eta autonomia erkidego horietako bakoitzeko abeltzainek emandako erreferentziazko kopuruen baturarekiko proportzionala izanen da.

3.- Errege Dekretuak ez du esne-ekoizpenari uzteko planen kopurua mugatzen, baina behiesnearen alorreko ustiapenak sektorean lehiakorrak izateko indizeetara heldu arte luzatzeko asmoz sortu da.

4.- Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko, aurtengo kanpainan Nafarroak 40 milioi inguru aurreikusi ditu Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioarekin elkarlanean, betiere abeltzain nafarrek ekoizpenei uzteko plan honi nola erantzuten dioten.

5.- Ondoko baldintzetako bat bete beharko dute:

a) Nekazaria izatea edo izaera hori eskuraztea, jarduera nagusi gisa.

b) Nekazari gaztea izatea eta esnea lehenbiziko aldiz ekoiztea.

c) Nekazaritza-produktuen ekoizleen elkarte, nekazaritza-produktuen eraldaketarako elkarte, kooperatiba edo beste izatea.

d) Ustiatzea egoera kaskarretan dauden inguruetan edota berariazko arazoak dituzten bilketaguneetan egotea.

e) Ongintzako edo irakaskuntzako erakunde bat izatea.

Era berean, 300.000 kg-tik beherako kuota izan beharko dute esleitura, ezin izanen dute lehendik ekoizpenari uzteko programetan parte hartu, azken bost kanpainetan ezin izanen dituzte erreferentziazko kopuruak eskualdatu edo besteren esku utzi, aurreko kanpainak ezin izanen dute banan-banako erreferentziazko hartutako kopuruen % 90tik behera merkaturatu, eta esnea eta esnekiak ekoiztu eta merkaturatzeko osasun-baldintzak bete beharko dituzte.

6.- Ekoizteari uzten dioten abeltzainen kalteordainak finantzatzeko lehentasunak ondokoak izanen dira, eskabideek esleitutako zenbatekoa gainditzen duten kasuan:

1.- Jarduera horretan jarraitzeko arazoak dituzten ustiapenetako titularrak.

2.- 55 urtetik gora, adin handieneko abeltzainak.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformak aurreikusitako eskubideen salerosketari eta erreserbari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Azken urteetan Nafarroak ondoko azalaren birlanaketa-eskubideak erabili ditu:

Urteak	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Navarra JD	447 Ha	627 Ha	217 Ha	317 Ha	418 Ha	529 Ha	833 Ha	600 Ha
Rioja JD	447 Ha	97 Ha	217 Ha	50 Ha	43 Ha	58 Ha	85 Ha	10 Ha

Azpimarratu Nafarroan azken urteetan eta, EVENA erakundearen bidez, ez duela eskubiderik galdu. Erabili gabeko eskubideen iraungitze-datak kontrolatzen, eta eskaera egiten duten mahastizainen artean banatzen ditu EVENA erakundeak.

2. Gaur arte egindako lana eraginkorra izan denez bide beretik jarraitzeko asmoa dago.

Mahasti eta Ardoaren arloko etorkizuneko Merkatuaren Antolamendu Amankomunari buruz bideratzen ari diren dokumentuek autonomien arabeko eskubide-bankua ezartzeko bidea hartu dute, Nafarroan egindako jarduketa-bidea jarraituz.

Bestalde, EVENA erakundeak legezko baldintza teknikoak eta burokratikoak aplikatzen ditu zorrotz, Foru Komunitatetik kanpoko eskubide-transferentzia baztertzeko, eta orain arteko emaitzak oso positiboak izan dira.

3. Autonomien arabeko eskubide-poltsa ezartzea bultzatuko da, gaur egun egiten ari diren bezala, eta merkatuak eta Jatorrizko Deiturak hala eskatuz gero, Foru Komunitatetik kanpoko eskubideak eskuratzea bultzatuko da.

4. Autonomiek erabiltzeko, mahastizainen esku dauden birlanaketa-eskubideak indarrean egoteko urteak murrizteak, mahastiak landatzea, bizkortzea eta malgutasuna eskainiko ditu; era honetara, arloaren onurarako, etorkizunean hedapen-planak egitea bultzatuz.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroa jatorrizko deituraren mahastikatastroaren arabera, barietateek ondoko azalera eta portzentajeak betetzen dituzte:

Garnatxa:	6.289 Ha.	% 45,04
Tempranillo:	3.854 Ha.	% 27,60
Cabernet-Sauvignon:	1.190 Ha.	% 8,52
Viura:	1.065 Ha.	% 7,63
Gainerakoa	1.565 Ha.	% 11,21
Guztira	13.963 Ha.	

Batez besteko ekoizpena: 80.000.000 kg.

Nafarroan Errioxa jatorrizko deituraren mahastikatastroaren arabera, ondoko datuak ditugu:

Garnatxa:	951 Ha.	%19,49
Tempranillo:	2.720 Ha.	%55,77
Cabernet-Sauvignon:	40 Ha.	%0,82
Viura:	554 Ha.	%11,35
Gainerakoa	613 Ha.	%12,57
Guztira	4.878 Ha.	

Batez besteko ekoizpena: 30.000.000 kg.

Nafarroan, Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) Erreformaren aurretik, sektorearen berregituraketa hasi zen.

1980an mahastien % 90a Garnatxa motakoa zen.

Urte horretan, garraioa % 100ean baso-erreal-estua moduan egin zen. Gaur egun % 50a besorakoetan egiten da.

Landaketa-esparru osoa Esparru Errealean zen 1980az geroztik, gure mahasti guztietan esparru zabala izatera pasa gara. Esparru-mota honek mekanizazioa erraztu du, Nafarroa lehena izan zen landatzeko tresnak, preinaustatzeko tresnak, hozitzeko tresnak, ongarrizko tresnak, tratamendu-tresnak eta mahatsa biltzeko tresnak erabiltzen.

Era berean, azaleraren ia % 30 tanta-isurtze bidezko ureztaketa edo ihintzaketa bidez egiten zen.

2. Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bidez, EVENA erakundeko zerbitzu teknikoaren bidez, eta mahastiaren eboluzioa finantzatzeko bideen bidez bultzatu eta babestu du.

Gaur egun, mahasti eta ardoaren arloaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren erreformari buruzko erregelamendua bideratzen ari dira eta ez da 1999ko lehen seihilekora arte behin betiko onespina aurreikusi. Horregatik ez dira ezagutzen kofinantzaketa eta plan zehatzak. Hala ere, Nafarroak bere mahastiak berregituratzeko jadanik markatua duen bidea jarraituko du, Europako Batasunetik lor daitezkeen laguntza gehien bidez bultzatuz.

3. Mahasti-katastroa, barietatearen arabera banaketa, bideratzea, gomendatutako dentsitateak eta mekanizazioa, jadanik markatutako eta bultzatzen jarraituko dituzten jarduketak bidez dira. Une honetan, kalitate txikiko barietateak berriz mentutzea aztertzen eta lantzen ari dira.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento Navarro” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Mahasti eta ardoaren arloa gorantz doa. Mahasti eta ardoaren eskualde guztietan, kalitatezko ardoen prestakuntza eta lorpena, bertako mahastien egoerarekin loturik daude: bertako barietateekin eta fruituekin.

Nafarroak lehengaiak dauka, mahastia –mahatsa–, kalitatezko ardoak lortzeko oso barietate egokia. Egia esan, nabarmena da Nafarroako ardoen hobekuntza analitiko eta organoleptikoa, eta gainera kontuan hartzekoa da merkatuan aurki daitezkeen ardo-mota desberdinen (zuria, gorria, beltza) hazkuntza. Gertatzen ari da munduko ardo-merkatua gure ardoen kalitatea onartzen eta era berean eskatzen ari dela. Horrela, Nafarroa jatorrizko deiturarekin lortutako ardoen % 30 kanpora bidaltzen da, esportazioaren % 75 Europako Batasunera doalarik.

Honen arrazoiak bat kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio ona da.

2. Berez, tramitatzen ari den dokumentuak aurreko proposamena hobetzen du, eta Nafarroako mahasti eta ardoaren arloaren erreferentzia ona izan daiteke.

Proposamenak orokorrean, positiboak izan daitezke hedapen, birmoldaketa, berregituraketa eta kalitate gaitetan. Hala ere, sustapen eta ikerketa gaitetan eskasak eta zehaztugabeak izan dai-

tezke; eta negatiboa da, ardoa eta txaptalizazioa definitzen dituzten baldintzak zehatz-mehatz betetzen ez dituzten produktuei babes eskaintzeagatik.

3.

a) Egiturak hobetu

b) Mahastizaintzako ustiapen bidegarriak lortu

c) Birmoldaketa eta berregituraketa indartu

d) Europako fondoan ahalik eta laguntza handiena lortu

e) Eskaintza eta eskaera arautzeko landaketa berriak egiteko eskubide-bankua lortu

f) Sektorearen modernizazioa eta prestakuntza bultzatu

g) Mekanizazio integrala jartzea sustatu

h) Ardoen eta mahatsen kalitatea bultzatu

i) Ikerkuntza, esperimendazioa eta aholkularitza bultzatu EVENA delako erakundearen bidez.

4. Upelategiak hobetzen eta azken urte hauetan berriak sortzen egindako inbertsio-esfortzua ezaguna da.

Jarduera-bide hau indartzen jarraitu behar da, Foru Diputazioak eta Komunitateak eman ditzaketen finantzaketa-laguntzekin. Bestetik, sustapenarekin jarraitu behar da, nazio eta nazioarte mailan eginen diren lehiaketa eta azoka garrantzitsu guztietan.

5. Nafarroa jatorrizko deituraren Kontseilu Erregulatzailearen eta Errioxa jatorrizko deituraren Kontseilu Erregulatzailearen bidez, kontrolatzaileen jarduketa bultzatu, kontseilu horiek ezarritako arauak betetzeko.

Ikerkuntza, esperimendazio eta aholkularitza zentro nagusia den EVENA erakundearekin harremanak indartu eta sustatu, mahatsaren eta ardoaren kalitate handiena lortzeko.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aurtengo ekainaren 9 eta 10ean Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritzako Egituren Zerbitzuak Ziraukiko lurzati-kontzentrazioan egitekoa zen bide eta saneamenduetako sareetako obrei buruzko proiektua igorri zion Ziraukiko Udalari, horri buruzko dokumentazio guztiarekin batera.

2.- Obra proiektuarekin bat etorri, bide nagusien sarea, 73 kilometrokoa, burutzen ari da gaur egun. Hauek laupabost metroko zabalera erabilgarria duten lasta naturalez hornitutako bidezorua dute eta dagozkion arekak, eta beharrezkoa den inguruetan, sekzio handiagoko areka handiak egiten ari dira.

Era berean, 12,5 kilometroko bide egokituak egiten ari dira lurrian, bide zaharren gainean

gehienak, eta 4 metro zabalera hartzen dutenak. Sarea osatzeko, mugarritutako irteerak egokitu dira eta bide zaharrak bere horretan utzi dira, berrikuntzarik egin gabe.

Saneamendu-erretenei dagokienez, proiektuan aurreikusitakoarekin bat etorri burutzen ari dira, eta dagoeneko aurreikusitakoa baino 140.00 m³ gehiago zulatu dira.

3.- Girgillaoko mendatetik Ziraukira jaisten den “Igesteko bidea” bideari dagokionez, nahiz eta obra proiektuan bide hori egokitzea aurreikusi ez, Ziraukiko Udalak hala eskatuta, dagozkion azterketa arkeologikoak egin ditu Trama Kabineteak, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bitartez, eta erromatar galtzadaren ondoan arkeologia aldetik interes handia duen tutueria hidrauliko bat aurkitu dute. Horrenbestez, azterlanean jarduketa-arau batzuk finkatu dira.

Egituren Zerbitzuak bide hori egokitzearen aldeko jarrera adierazi du, bide horren eragin-eremuaren jabeek lagapena edo trukea ematearen baldintzapean. Oraingoz ez da eskatutako lankidetzara hori lortu.

4.- Vianako Printzea Erakundeak finkatutako zuzentarauei jarraiki, nekazaritza-ibilgailuen trafikoa ez du Dorrondoako zubiaren egoera kaltetuko, berez hondatu samarra baitago, eta trafikoa desbideratzeko areka bat eraiki da aipatu zubitik ibaian behera.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Olibaren salneurria garestitzearen ondorioz (gutxi gorabehera duela 7 urte gertatu zen igoe-ra), sektore honekiko interesa piztu zen, ustiapenetan sarrera gehigarriak lortzeko aukerak baitzeuden.

Ikuspuntu honetatik, Foru Administrazioak bi alderditatik jardun zuen: alde batetik, plantazio berriei lagunduz, horretarako ITG Agrícola-ren aholkuei jarraiki, eta, bestetik, olio errota kooperatiboen arteko elkartzea erraztuz, hartara, olioaren ekoizpenean eraginkortasun, errentagarritasun eta kalitate handiagoa lortu ahal izateko.

Jarduteko esparru bikoitz hau apirilaren 3ko 87/1995 Dekretuan islatu zen. Dekretu horretan olibagintza zein basaragintza sustatzeko laguntzak ezarri ziren, baita Arroitzen “Mendia” 2. mailako Kooperatiba Errota eratzeke eta eraikitzeke laguntzak ere.

2. Lehen aipatu dugun Dekretua ezartzeak 62 espediente onestea ekarri du: guztira 108,5 milioi pezetako inbertsioa, 29 milioi pezetako dirulaguntza eta 173 Hako azalera landatua.

Beste 45 espediente tramitatzen ari dira; 89 milioiko inbertsioa aurreikusi da eta landatutako azalera gutxi gorabehera 165 Hako da.

3. Estellerrian oloi errota eraiki ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, Instituto Técnico y de Gestión Agrícola delakoaren bidez, Erribera Behereko olio errota kooperatiboetan modu berean jardutea proposatu du.

Duela gutxi, inguruko kooperatibei “Nafarroako Erribera Beherean bigarren mailako olio errota kooperatiboa kokatzeko azterlana” eman zaie ezagutzera, non, kokalekuei eta kostuei dagokienez, aukera desberdinak azaltzen diren, proiektuaren gauzatzea ahalbidetuko duen erabaki adostua hartu ahal izateko.

4. EBko Kontseiluak uztailaren 20ko 1638/98 zk. Erregelamendua (EE), 136/66/EEE zk. Erregelamendua aldatzekoa, onetsi du. Material koipe-tsuen sektorean Merkatuaren Antolamendu Komuna ezartzen du aldatutako Erregelamenduak eta EBko herrialdeetako olibaren sektorearen jarduketara esparrua da.

5. ITG Agrícola-k bariatateen, kultur praktiken eta ureztatzearen inguruan eskaintzen duen aholkularitza teknikoari eustea, eta Erribera Beherean 2. mailako olio errota kooperatiboa eraikitzeke proposamena gauzatzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentario andreak Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentario andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentroetarako Arrow Ibérica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galdera egin du. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Ea Arrow Ibérica enpresak, kateterak egiten dituen izen bereko multinazional amerikarraren Espainiako atalak, 1996 eta 1997 urteetan hornitu dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentro guztiak.

Bai, 1996 eta 1997 urteetan zehar, “Arrow Ibérica S.A.” enpresak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbait Zentro (Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Tuterako Ospitalea) hornitu ditu.

2. Hornidura hori izan bada, ea manipulaziorik antzeman den materialaren iraungipen datan edo, bestela, zehaztasun akatsak adierazleetan.

Ez da inolako manipulaziorik antzeman iraungipen-datan, ezta zehaztasun akatsik ere adierazleetan.

3. Ea material hori lehiaketaren bidez edo zuzenean erosi zen. Hala bada, ale bakoitzaren erosketa prezioa jakin nahi dugu.

1996. urtea

Katetera, presioa 7F latexezko baloia 110 cm	Zuzenean	13.180 Pta
Katetera, argi hirukoitza infusioa 20 cm	2/96 lehiaketa	3.500 Pta
Katetera, argi bikoitza infusioa 20 cm	Zuzenean	5.462 Pta
Katetera, periferikoa 8,5F	Zuzenean	5.301 Pta
Katetera, argi bikoitza infusioa 30 cm	Zuzenean	6.050 Pta
Katetera, argi hirukoitza infusioa 30 cm	Zuzenean	8.150 Pta
Katetera, larrialdietakoa 6G	Zuzenean	3.503 Pta
Katetera, subklabioa argi bikoitza 12 Fr. set	Zuzenean	11.500 Pta
Set anestesia epidurala	Zuzenean	2.100 Pta
Arteria eta zainetatik sartzekoa 6F	Zuzenean	7.014 Pta
Arteria eta zainetatik sartzekoa 7F	Zuzenean	9.528 Pta
Arteria eta zainetatik sartzekoa 8F	Zuzenean	4.500 Pta
Sartzekoa, 8F Large Lumen	Zuzenean	9.528 Pta

1997. urtea

Katetera, Bergman 7F 100 cm	Zuzenean	13.180 Pta
Katetera, presioa 7F latexezko baloia 110 cm	Zuzenean	13.180 Pta
Katetera, argi hirukoitza infusioa 20 cm	2/96 lehiaketa	3.271 Pta
Katetera, Swan-Ganz 7F standarda	Zuzenean	7.500 Pta
Katetera, argi bikoitza infusioa 20 cm	Zuzenean	5.462 Pta
Katetera, periferikoa 8,5F	Zuzenean	5.301 Pta
Katetera, argi bikoitza infusioa 30 cm	Zuzenean	6.050 Pta
Katetera, argi hirukoitza infusioa 30 cm	Zuzenean	8.158 Pta
Katetera, larrialdietakoa 6G	Zuzenean	3.503 Pta
Katetera, arteria -barnekoa laburra	18/97 lehiaketa	1.400 Pta
Katetera, subklabioa argi bikoitza 12 Fr.	Zuzenean	11.500 Pta
Set anestesia epidurala	Zuzenean	1.914 Pta
Sartzekoa 8F large Lumen	Zuzenean	9.528 Pta
Baloi perkutaneo kontrapultsaziokoa	24/97 lehiaketa	145.000 Pta

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruzko galdera egin du. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer udal eta tokitan hartzen dute seinalea aipatu zentrotik?

Gorramendiko Telekomunikazio Zentrotik (TVE1-TVE2-A3-TV5-CANAL+) seinalea zuzenean hartzen duten herriak:

Aintzialde, Aitzano, Almandoz, Amaiur, Aniz, Antzanborda, Apaioa, Arizkun, Ariztegi, Arribiltoa, Berroeta, Bozate, Elbete, Elizondo, Erratzu, Etxaide, Gartzain, Iñarbil, Irurita, Lekaroz, Oharriz, Ordoki, Peralats, Urrasun, Ziga, Zigaurre, Zozaia eta Zuaztoi.

Gorramendiko seinalea zeharka hartzen duten herriak, honako errepikagailu hauen bitartez:

LESAKA (TVE1-TVE2)

Aientsa, Azkilarrea, Bera, Berriazun, Biurrana, Bordalarrea, Etxalar, Frain (Igantzi), Igantzi, Izoztaldea, Katazpegi, Larrapil-Sarriku, Lesaka, Narbaz eta Orizki.

URDAZUBI (TVE1-TVE2-A3-TV5)

Alkerdi, Dantzarinea, Landibar, Leorlaz, Telleria, Urdazubi eta Zugarramurdi.

ORONOZ (A3-TV5)

Mugairi, Oieregi, Oronoz, Bertizgo Jaurerria.

Zenbat emisio-mozketa gertatu dira 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, Gorramendiko telekomunikazio-zentroak hartzen duen inguruan?

1998ko urtarrilaren 1etik 1998ko uztailaren 31 arte, sei emisio-mozketa izan dira.

Noiz gertatu dira eta zenbat iraun du horietako bakoitzak?

1998-01-05: 2 ordu eta 23 minutu

1998-02-23: ordu bat eta 53 minutu

1998-02-24: 10 minutu

1998-04-12: 3 ordu eta 45 minutu

1998-05-08: ordu bat

1998-05-15: 4 ordu

Zenbat ordu pilatu da aurrean zerbitzurik eskaini gabe?

13 ordu, 11 minutu

2. Zeintzuk dira lehen aipatu mozketen arrazoiak?

Ekipo elektronikoen matxura: bi kasutan (1998-1-5 eta 1998-2-23)

Deskarga elektrikoek eragindako matxurak: 2 kasutan (1998-4-12 eta 1998-5-15)

Programatutako mozketak: 2 kasutan (1998-2-24 eta 1998-5-8)

Zeintzuk dira lehen aipatu mozketen arrazoiak? Arrazoi berberak izan al dira denentzako?

Ikus dezakegunez, emisio-mozketa guztiak ez dira arrazoi berarengatik gertatu.

3. Zer aukera tekniko dago ikusi diren akatsak konpontzeko?

Ekipo elektronikoen matxuren kasuan, trukatzeko automatikoa duten erreserba-ekipoak instalatuko dira.

Deskarga elektrikoek eta energia-mozketen kasuan, elikadura automatikoko ekipo autonomo bat instalatuko da. Nahiz eta deskarga elektrikoek kasuan ez diren beti eraginkorrak.

Programatutako mozketetan: bat ere ez.

Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatu mozketak konpontzeko?

Nafarroako Gobernuak, 1999 eta 2000 ekitaldian, telemedia- eta telekontrol-sistema bat garatzea aurreikusi du, Nafarroako Gobernu talde itxiko irratitelefonia-sarean ezarriko dena. Sistema honi esker, telebista-sistemetan izan dai-

tekeen edozein arazo berehala antzemanen da, eta, ondorioz, irtenbide azkarra emanen zaie arazoei.

Bestalde, mantentze-jarduera ohikoen artean, hornikuntza elektrikoari dagokionez, arazo gehien dituzten zentroetan instalazio elektrikoak azterzen eta hobetzen ari dira.

Horrez gain, ez da inolako jarduera berezirik aurreikusi; izan ere, alde batetik, zentroan izandako mozketak ez dira emisio guztiaren % 0,10 izatera iristen, eta, bestetik, zentro emisoreetan bakarrik aurkitzen dira –zentro berremisoreetan ez– trukatzeko automatikoa duten erreserba-ekipoak eta etenik gabeko elikadura-sistemak.

4. Nafarroako Gobernuak egin al du aurreikusitako jarduketan aurrekontu-balorazioa? Zenbat jotzen du horren kostuak, guztira?

Telekontrol-sistemaren garapena beste proiektu zabalago baten barruan sartzen da, trunking-sarearen proiektuan hain zuzen, eta, une hone-tan, Gorramendi Zentroari dagokion eragina baloratzea ezinezkoa zaigu.

Bestalde, Telekomunikazio Zentroetan, ekaitzen ondorioz izaten diren deskarga elektrikoek aurkako babesak hobetzeko sistemak aztertzen ari dira.

Noizko aurreikusi du bukatuko dituela inguru horretako herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko behar diren jarduketak?

Lehen ere esan dudana bezala, telekontrol-sarea 1999-2000 ekitaldietan garatuko da. Deskargen aurkako babesak hobetzea dela eta, irtenbi-

de bideragarria eta eraginkorra aurkitzen dugun unetik beretik aitzina aplikatuko da.

5. Zer ituntze-mota du Nafarroako Gobernuak Retevisiónekin Gorramendiko telekomunikazio-zentroa dela-eta?

Nafarroako Gobernuaren eta Retevisiónen arteko ituntze-mota 1995eko irailaren 22an sinatu zen Hitzarmen batean dago finkatuta.

Aipatu Hitzarmenaren arabera, Retevisiónek 12 zentrotako ekipoak mantendu eta zaintzeko ardura hartzen du bere gain; horien artean Gorramendiko zentroetakoak. Nafarroako Gobernuak, berriz, azpiegitura zibilaren eta elikadura elektrikoaren ardura hartzen du bere gain.

Ezarritako baldintzek eraginik jaso al dute emisioetan izandako akatsen ondorioz?

Retevisiónek du Espainia osoan telebista publikoen zein pribatuen seinaleak banatzeko monopolioa, eta Retevisión da Nafarroan hitzartutako zentroetan izan daitezkeen akatsen ardura-duna, beti ere energia elektrikoaren hornikuntzarik ezaren ondorioz ez bada, kasu horretan erantzukizuna Nafarroako Gobernuarena baita. Beraz, hasiera batean, Hitzarmenean ezarritako baldintzak ez dira aldatzen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 4an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilari jaunaren erantzuna:

1.- Erakusketaren kostua, guztira: 17.049.406 pezeta.

2.- Erakusketako artelanen kopurua: 24.

Helburu nagusiak honako hauek izan dira:

– Nafarroako XVII. mendeko pintorerik ospetsuenaren garrantziaren berri ematea jende orori (berezi, Nafarroako jendeari).

– Kalitate handiko pintore baten berri ematea Espainiako espezialistei, aditu gehienentzat oraindik ezezaguna baita.

– Horren ondorioz, Vicente Berdusán-en arteproduktzioari balio handiagoa ematea, honen zatirik handiena Nafarroan bertan baitago.

4.- Bai, aipatu artistaren artelanak zaharberritu dira Nafarroako diru publikoaren kontura.

Zaharberritzearen helburuak eta justifikazioa: erakusketako artelanak behin betiko hautatzean, zenbait arrazoiengatik –besteak beste, oso narriatuta zeuden mihise batzuk zaharberritu ezinagatik– lan interesgarrienetako batzuk alde batera uztea erabaki zen. Baina, hala ere, Vicente Berdusán jaunaren artelan gehienak kontserbazio-egoera txarrean daude.

Beraz, inolako egokitzapen edo zaharberritze lanik eskatzen ez zuten eta kontserbazio-egoera onean zeuden artelanak bakarrik erakutsiz, ezinezkoa zen planteatutako helburuak lortzea.

Erakutsi aurretik egin beharreko zaharberritzea, nolabaiteko mamia duten erakusketa guztietan ohikoa dena, erakusketari esker lortu diren onuren artean garrantzizkoa da.

Guztira 18 artelan dira eta kostua 5.212.730 pezetakoa, honako kontusail hauen kontura:

– 42220-2269-4531 kontusaila, “Erakusketa-gastuak”, 1997. urterako gastu-aurrekontuaren 14460-7 lerroa.

– 42220-2269-4531 kontusaila, “Erakusketa-gastuak”, 1998. urterako gastu-aurrekontuaren 14550-9 lerroa.

– 42220-2269-4531 kontusaila, “Kultur ekin-tzak Nafarroako Museoan eta informazio-buletina”, 1998. urterako gastu-aurrekontuaren 14560-6 lerroa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeko Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Etxegarate mendatea bikoizteko obren bukaerari buruzko galdera egin du. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein baldintza objektibo eta argudio tekniko eta/edo politiko dela-eta aldatu du jarrera Gobernu honek, Parlamentuko gure taldeari –de facto– arrazoia emateko?

N-I Altsasu-Etxegarate zatia autobide bihurtzeko Proiektuari dagokionez, Altsasuko Udalak aur-

keztutako ibilbide-proposamenari jarraitzea erabaki da, hau da, autobidea gaur egungo N-I errepidetik erabat banantzea.

Errepideen Plan Zuzentzailea lantzen zen bitartean aztertutako aukeren artean, baziren egungo errepidetik hurbilagoko irtenbideak. Horri esker, obra bi fasetan egiteko aukera zegoen, errepide berria zatika jarriz zerbitzuan. Beraz, Errepideen Plan Zuzentzailean azaltzen zen Etxegarate bikoizteko obren programazioaren arabera, obra bi etapatan eginen zen, eta, ondorioz, denbora gehiago behar zen obra amaitzeko.

Onetsitako irtenbidea, ibilbide berria (errepidea erabat banantzea) dakarrena, obra bakar batean eginen da, eta, ondorioz, nahiz eta inbertsio handia egin behar izan, ezin da 2002 urtea baino beranduago bukatu; gainera, Nafarroako Gobernuak ez du planteatu ere egin obren hasiera atzeratzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruzko galdera egin du. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Bianako Printzea Erakundeak aipatu mausoleoaren titulartasuna bere gain hartzea proposatuko dio Nafarroako Gobernuari. Arazoa ez da hori, baizik eta gaur egun titularra nor den jakitea. Horretarako, Bianako Printzea Erakundean jada

lehenengo urratsak eman dira, eta Lizarrako Udalaren erantzunaren zain daude.

Gai honen inguruan giza-osagai garrantzitsua dago; izan ere, karlista bat izan da, Esteban Retana hain zuzen, urte askotan zehar mausoleoa zaindu duena, mausoleoaren titularra izan gabe. Administrazioa mugitzen deneko suposamendu juridikoetan nolabait sartu beharko da puntu hau.

2.- Nafarroako Gobernuak ez du utziko beste Diputazio batek Mausoleoaren titulartasuna bere gain hartzea. Berez, erantzun hau lehenengo galderarekin erantzun dugu, Nafarroako Gobernuak mausoleoa bere gain hartzeko izapideak dagoneko hasi baititu.

3. Oraindik ez dago mausoleoa museo bihurtzeko proiekturik, eta harik eta Alderdi Karlistak piezekin zer egin nahi duen esan, inbentarioa aurkeztu eta pieza horiekiko titulartasunaren aurrean bere jarrera azaldu arte ez da inolako proiekturik izanen; Alderdi Karlistak hori guztia eginez gero, akordio batera irits daiteke.

Gobernuaren eta Lizarrako Udalaren aldetik, badirudi arazoari irtenbidea emateko gogoia dagoela, eta horretarako Lizarrako Udalak Gobernadorearen Jauregiaren titulartasuna bere gain hartzeko izapideak hasi ditu, eta Bianako Printzea Erakundeak jauregia zaharberritzeko lanetan parte har dezake.

4. Komenigarria izateaz gain, logikoa ere bada aipatu mausoleoa, gaur egun duen formatua eta Lizarrako hilerrian duen garrantzia kontuan hartuta, karlismoaren zirkuitu historikoaren barruan sartzea, bisitatu dezaten eta gida turistikoetan ager dadin; hartara, bisitari orok Lizarrako hiriko eta orokorrean Nafarroako beste ikuspegi bat ezagutu ahal izanen dute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Castejonen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak Castejonen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Castejonen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

1.- Zer informazio du Nafarroako Gobernuak proiektu horiei buruz?

• Azaroaren 27ko 54/1997 Legea, Elektrizitatearen Sektoreari buruzkoa, indarrean sartuz geroztik, merkatua pixkanaka liberalizatzeko prozesu bat abiatu da; izan ere, energia elektrikoa sortzeari dagokionez, instalazio liberako eskubidea onartzen du, eta, hala, lehia askearen printzipioaren arabera antolatzen da.

Egoera honetan, sektore honetako enpresek interes handia azaldu dute gas naturalarekin uztartutako ziklo konbinatua darabilten zentral termikoak direla eta. Izan ere, bestelako zentral termikoen aldean abantaila hauek dituzte: eragin txikiagoa ingurugiroan, etekin handiagoa (kontsumo txikiagoa ekoizpen berdina lortzeko), malgutasuna lanetan, eraikitzeko denbora gutxiago behar, ezartzeko espazio gutxiago behar, etab.

Komunikabideek enpresen planen berri ematen dute ia egunero, eta beren lantegiak jartzeko leku egokien bila dabilzala azaltzen dute.

Ezagarri hauek dituen proiektu batek erregaia ziurtatzea, sarea hustea eta lurrindutakoa berreskuratzeko edo hozteko ura eskatzen du, erabiltzen den teknologiaren arabera, azken hau.

Castejonek eskakizun hauek guztiak betetzen ditu, presio altuko gasbideetatik (sare nazionala eta nazioarteko konexioa) eta tentsio altuko garraiabideetatik hurbil baitago; gainera, lursailak eta, hala behar izanez gero, tenperatura handitzearen eragina gutxitzeko behar besteko emaria daraman ibaia ditu.

Ezaugarri hauek honelako zentral bat jartzeko aukera eskaintzen diote Castejoni eta bai Iberdrolak bai Hidrocantábricok, nork bere aldetik, beren proiektuen kokagune izateko aukeratu dute.

Enpresa biek Udalez gaindiko Eraginei buruzko Proiektu Sektorialak aurkeztu dituzte, eta ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko espedienteak zein administrazio-baimena ari dira tramitatzen, Ingurugiro eta Industria Ministerioetan.

Iberdrolak 800 MW-ko potentziarekin lan egitea aurreikusten du, baina, lehen etapan behintzat, enpresa biek 400 MW ezartzeko asmoa dute, bakoitzak 28.000 milioi pezeta inguruko inbertsioa egiten duelarik.

2.- Zenbateko azalera beteko du instalazio horietako bakoitzak?

Erabiltzen den teknologiararen, zentralak kokatzen direneko lursailen eta zerbitzuen eskakizunen arabera, 100.000 eta 150.000 m² bitarteko azalera beharko du zentral bakoitzak.

3.- Beteko duten azalera publikoa ala pribatua izanen da, ureztalur ala lehorreko lur?

Hidrocantábricok industrialdeari dagokion lursailean —egun jabego publikokoa denean— kokatzeko asmoa du, eta Iberdrolak, berriz, aurreko horren ondoan dauzkan lurretan.

4.- Instalazio horietako bakoitzean zenbat lanpostu sortzea aurreikusi da?

Enpresa bakoitzak egiten duen azpikontratazioaren arabera izanen da plantilla. Gutxi gorabehera, enpresa bakoitzak 50 lanpostu sortuko ditu zuzenean, eta beste 50 zeharka, mantentzen, garbiketa, seguratasun eta abarretan.

5.- Zenbateko zergak bilduko ditu Castejongo Udalak gutxi gorabehera?

Udalaren diru-sarrerak ebaluatu ahal izateko, zehatzago ezagutu behar dira proiektu bien ezaugarri guztiak; baimena eta antzeko gaietan ezinbestekoa da hori. Era berean, Udalak bere eskumenen arabera eskain ditzakeen pizgarrien arabera izanen dira.

6 eta 8.- Zer mota eta zenbat hondakin solido eta gaseoso isurtzea aurreikusi da? Zer erregai mota erabiliko da instalazioetako bakoitzean?

Erabiliko den erregaia gas naturala da.

Ingurugiroaren gaineko eraginari dagokionez, hauek dira errekuntzan isurtzen diren poluitzaile atmosferikoak: partikulak, SO₂, NO_x eta CO₂.

Hauek guztiak aztertuz gero, ikusiko dugu gas naturalak ez duela errausik, hautsik edo hondakinik sortzen, eta ez duela batera suferirik edo, izatekotan, oso gutxi, eta, ondorioz, errekuntzan ez duela partikularik edo SO₂-rik sortzen.

NO_x sortzen den ala ez erabiltzen den errekuntza-sistemaren arabera da, funtsean. Zehazkiago, gas naturalaren errekuntza NO_x gutxiko erregailuak darabilten teknologiararen bidez eginez gero, nabarmen urritzen dira gas hauek, fuel oil eta ikatzaren errekuntzaren aldean.

Erregai fosilek sortzen dituzten errekuntza-gasen osagai "naturala" da CO₂.

Berotegi-efektuan eragin handia du eta, beraz, mundu osoan murriztu beharra dago. Karbono/hidrogeno erlazioa txikiagoa da gas naturalean bestelako erregai fosiletan baino, eta, gainera, ziklo konbinatu batean etekina askoz handiagoa da eta, beraz, ekoizten den kwh bakoitzeko CO₂ gutxiago sortzen da. Gas naturalarekin uztartutako ziklo konbinatuak (bi abantaila horiek biltzen dituenak) % 25 edo 30 CO₂ gutxiago sortzen du petrolioarenak baino eta % 40-50 gutxiago ikatzarenak baino, sortutako energia unitate bakoitzeko, biak ere.

Horren ondorioz, ingurugiroaren gaineko eraginari dagokionez, energia elektrikoa sortzeko egun dagoen sistemarik garbiena da (energia berriztagarriak albo batera utzita) gas naturalarekin uztartutako ziklo konbinatua darabilen zentrala.

7.- Aintzat hartzen badira zein diren maizen izaten diren haizeak, eragin al dute Tutera aldean edo eskualde horretako bestelako herrietan?

Proiektuak burutzean ingurugiroaren gainean sor daitezkeen eraginak hainbat azterlan eta sistema teknikoren bidez kalkulatzeko dira. Horiek guztiak ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa delakoa osatzen dute, eta, besteak beste, ondokoak hartzen ditu aintzakotzat ebaluazio horrek: proiektuaren deskribapena, alternatiba bideragarrien azterketa eta aukeratutako irtenbidea arrazoitzea, ingurugiroaren gaineko eraginak, neurri zuzentzaileak finkatzea eta ingurugiroa zaintzeko programa.

Espedienteen tramitazioa Ingurugiro Ministerioaren eskumena da, kasu honetan.

Indarreko arauekin bat etorritik, enpresa biek proiektuen memoria-laburpena aurkezterakoan eman zaio hasiera prozedurari. Behin agiri hau

eskuraturik, organo eskudunak kontsultak egiten dizkie proiektuak eraginik sortzen ahal dien pertsona, Instituzio eta Administrazioei. Hauek proposamenak egiten ahal dituzte eraginei buruzko azterketak aintzat hartu beharreko alderdiak direla eta. Ondoren, proposamen horiek jakinarazten zaizkie proiektuen titularrei, eraginei buruzko azterketa egiteko garaian aitzankotzat har ditzaten.

Azterketa hori aurkeztutakoan, jendaurrean jartzen da, proiektuaren ezaugarriak, eraginak eta neurri zuzentzaileak jakitera emateko eta bidezko jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Azkenik, ingurugiroaren gaineko eraginei buruzko azterketaren arabera erabakiko da proiektua egitea komeni den ala ez, eta baiezkoan, berau burutzeko baldintzak finkatuko dira.

Nolanahi ere, 6 eta 8. puntuetan adierazitakoa ikusita, hasieran behintzat ez da inolako eragin nabarmenik aurreikusten Tuteran edota inguruko herrietan.

9.- Ikusita zein den erregaiaren kontsumoa eta erregai horren egungo egoera, mantenduko al du daukan garraio gaitasuna garraio instalazioak handitu beharrik gabe?

Goian adierazi dugunez, enpresa horiek Castejon aukeratzeko arrazoietakoa bat hornidura ziurtatzen duten gasbideetatik hurbil egotea izan da.

Horrenbestez, ekoizpen-instalazioekin lotzen duen adarra eraiki beharko da soilik, eta horrek Foru Komunitatean eraikitako gainerakoen antzeko ondorioak sortuko ditu ingurugiroan. Adar hau erakitzekeo dagokion prozedura burutu behar da: tramitazioa, jendaurreko aldia, alegazioak eta abar.

10.- Aztertu al da proiektu horien eragina eta Nafarroak onetsi dituen kontsumo energetikoaren irizpideekin bat ote datozen?

Berotegi-efektua sortzen duten gasak urritzekeo, aurrezteaz gain, ondoko bi alor hauek hartu behar dira aintzakotzat:

- * Energia berriztagarrien ekoizpena eta
- * Gainerako energiak

Hala eta guztiz ere, Espainian erabiltzen diren energien artean energia berriztagarriek % 6 osatzen dute soilik eta EBren Liburu Zurian 2010erako % 12 lortzeko nahia adierazten da.

Beraz, 2010etik aurrera % 88 geratuko litzateke oraindik, eta portzentaia hori handiagoa da oraindik urte horretara iritsi bitartean.

Espainiako elektrizitate-sektorerara mugatuta, sortzen den elektrizitatearen ia erdia ohiko zentral termikoetan sortua da.

Horrela bada, 2010 urtearen aurretik eta ondoren funtsezkoa eta ezinbestekoa zaigu orain dauden instalazioetan eragitea edo gutxiago poluitzen duten beste batzuek ordezkatzeari, berotegi-efektua sortzen duten gasak nabarmenki murriztu nahi izanez gero behintzat.

Horrenbestez, gauza nabarmena da ohiko zentral termikoen ordezkatzeari gas naturalarekin uztartutako ziklo konbinatua darabiltenak erabiliz gero, nabarmenki murriztuko lirakeela berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketak.

Gaur egun dauden instalazioak ingurugiroaren gaineko eragin txikiagoa sortzen duten beste batzuek ordezkatzeari uko eginez gero, egungo isurketa-maila onartzea eskatzen du horrek eta, era berean, Kiotoko protokoloan finkatutako helburuak modu eraginkorrean lortzeko jarduteari uko egitea.

Horrela bada, Castejoneko ziklo konbinatua darabilten zentralak jartzea (horiek isurketak murrizten laguntzen duten heinean) bat dator Nafarroan energia-alorrean burutzen den politikarekin, hau energia berriztagarriak erabiltzearen txit aldekoa baita. Biek ere egun baino poluzio gutxiago sortuz erantzuten diete egungo eskariaren beharrei.

Zernahi gisaz, berotegi-efektua mundu osoan eragiten duen ingurugiro-alorreko auzia da, eta, gure artean oso zabalduta dagoen iritzi baten arabera, eguratsean berotegi-efektua eragiten duten gasak ugaltzeak klima aldaketa orokorrak eragin ditzake, baita lur guztia berotu eta itsasoaren maila igoarazi ere.

Beraz, berotegi-efektua sortzen duten gasen ondorio txarrak planeta osoan igartzen dira, gas horiek edonon sortuta ere.

Beste alde batetik, Elektrizitate Sektoreri buruzko Legeak instalazio librerako eskubidea aitortzen du eta, hala, enpresa batek energia sortzeko lantegi bat eraiki ahal izanen du, baldin eta proiektuak eskakizun guztiak bete eta hirigintza, ingurugiro eta administrazio alorreko arauak finkatutako baimen guztiak lortzen baditu.

11.- Instalazio horiek sorturiko zenbat energia kontsumituko da Nafarroan?

Energia soilik aintzat hartuta, planta batek Nafarroak egun dituen elektrizitate premia guztiak aseko litzateke berak bakarrik; gainerakoa esportatu eginen litzateke, egun dugun inportatzeko joera nabarmena zeharo aldatuz.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi planta hauek aberastasuna sortzeko zein lagungarri diren, bai

kokatuta dauden herrian, bai Nafarroa osoan ere; izan ere, 100 lanpostu sortuko baitituzte zuzenean, eta zeharka lana emago diete garbiketara, segurtasun, mantenimendu eta bestelako enpresei.

Era berean, zerga-ordainketari dagokionez, urtero 2.500 milioi pezeta inguru ordainduko dituzte BEZarengatik, salneurriaren eta funtzionamendu-orduen arabera.

Bukatzeko, nabarmentzekoa da honelako proiektuek gure ekonomia dibertsifikatzea ahalbidetzen dutela.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 916an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du azalera handiko merkatalguneak jartzeari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

1.- Azalera handiko merkatalguneak ezartzeko dekretu proiektu bat martxan al da? Baiezkoan, norantz joanen litzateke horien erregulazioa?

Nafarroak barne-merkataritzan dituen eskumen eksklusiboetan oinarrituz (NFEBHLOko 56.1 d) artikulua), Foru Lege Aurreproiektu bat lantzen ari da, azalera handiko merkatalguneak Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeari buruzko arauak erabat eta osoki finkatzeko helburu nagusiarekin. Arau hauek merkataritza alorrari eta lurralde-antolamendu nahiz hirigintza alorre buruzkoak dira. Horregatik Aurreproiektu hori idazteko ardura duen batzordea Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kideek osatzen dute.

Aurreproiektuak ezartzen du Foru Komunitatean merkatalgune handiak ezarri, zabaldu edo aldatu nahi dutenek aipatutako baimena eskatu beharko dutela, eta ondorio horietarako merkatalgune handitzat ulertzen dena zehatz-mehatz zehaztu, eta merkataritza-jardueretarako baimen bereziak eskuratzeko eskabidea aurkezteko izapideak egiterakoan jarraitu beharreko prozedura administratiboa arautzen du.

Era berean, eta Aurreproiektu hori Foru Lege bihurtzen ez den artean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitekoa da, Txikizkako Merkataritzaren Antolamenduari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legeko 6. artikuluari jarraiki, merkatalgune handiak zabaltzeko behar den merkataritza-jardueretarako baimen bereziak ematea, betiere estatuko legegileak artikulua horretako 2, 3 eta 4 zenbakietan finkatu dituen irizpideekin bat etorritik.

2.- Zer irizpide du Gobernuak azalera handiko merkatalguneak ezartzeari buruz?

Aurreproiektu honetan organo eskudunak merkataritza-jardueretarako baimenak emateko garaian aintzakotzat hartu beharreko balorazio-irizpideak finkatzen dira, era arautuan eta jurisdikzio aldetik kontrolatzeko moduan. Irizpide horietan nabarmendu egiten da ezaugarri hauek dituzten merkatalguneek lehendik dauden merkataritza-egituren hobekuntza eta berriztatzea ekarri behar dutela, eta, bereziki, hiriguneetako merkataritza biziberritu behar dutela, hirigune hauek hustu daitezela eragoztearren.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

1.- Zehazki, nola zehaztuko da Nafarroako Plan Teknologikoa Nafarroako Gobernuaren alde-tik?

Plan Teknologikoa inplikaturik dauden agente guztien ekarpenekin ari da lantzen, hala lan-taldeen nola mahai sektorialen eta enpresa-diagnostikoen bidez.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Plan Teknologikoa babesten du 1997 eta 1998ko aurrekontuetan dagozkien kontusailatan egindako zuzkiduren bitartez eta Plan Teknologikoaren Zuzendaritza-batzordean parte hartuz. Zuzendaritza-batzorde horrek erabakiko du zein ekintza burutzea komeni den, bai eta Nafarroako Gober-

nuak jarraitu behar duen Teknologia eta Berrikuntza sustatzeko politiken esparrua ere.

2.- Noizko aurreikusitako du Nafarroako Gobernuak garatuko dituela plan teknologikoari babesa emateko jarduketak?

Nafarroako Gobernua Plan Teknologikoaren sustatzailea izan da eta beronen burutzapena babestu eta bertan aktiboki parte hartzen du Lantaldeen, Planaren Kudeaketa-unitatearen eta Zuzendaritza-batzordearen bitartez.

Aurreikusita dagoen egutegiaren arabera –gainera, aurreikusitakoa garaiz ari da gauzatzen–, 1999. urteko martxoan ekintza-plana Zuzendaritza-batzordeari aurkeztuko zaio. Apirilean, maiatzean eta ekainean emaitzak jendaurrean azalduko dira.

3.- Zenbat diru erabiliko da plan teknologikoari babesa emateko, eta zer aurrekontu-kontusailetik aterako da?

Plan Teknologikoaren ondorio eta gomendioen ondorioz burutu behar diren jarduketak definitu eta behar bezala baloratu ondoren, ekonomi beharrian batzuk egonen dira. Hauen zati bat I+Gko Plan Nazionalaren bitartez kofinantzatu ahal izanen da, eta beste zati bat Nafarroako Gobernuak finantzatuko du, dagozkion urteko aurrekontuen bitartez.

Nolanahi ere, Plana betetzeko erabili ahal izanen diren kopuruak eta aurrekontu-kontusailak Parlamentuak zehaztu eta onartuko ditu.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak parke eoliko hori ezartzeak Europan gero eta gutxiago diren estepa-ekosistemetak baten bilakaera oztopatzen duela? Zein arrazoi izan zituen Nafarroako Gobernuak instalazio hori, alegia La Negra-ko parke eoliko, atzera botatzeko gure Komunitatea ukitzen duen aldean?

Tausteko udalerriko Plana de la Negran Parke Eoliko bat jartzeak, Bardeen hegoekialdean topografia altuan, ez du Bardeetako estepa-zonako floraren eta faunaren garapena baldintzatu dezakeen zuzeneko eraginik; Bardeetako estepa-zonako gune nagusia, funtsean, Blancako hedapen zabaletara eta zona behekatua inguratzen duten erliebeetara dago lotuta.

Nafarroako Energia Eolikoaren Produkzio Azpiegituren Udalaz gaindiko Eraginari buruzko Plan Sektoriala (Energía Hidroeléctrica de Navarra S.A.k sustatua) behin betiko onartu zuen Nafarroako Gobernuaren 1996ko ekainaren 17ko Erabakiak. Erabaki horretako 2. B puntuak, La Negrako Parkean mota honetako instalazioak baimentzeko, aurretik Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onartu behar dela ezartzen du, eta, gainera, instalazioak Caídas de La Negrako Natur Erreserbaren Inguruko Babesgunetik kanpora egin behar dira.

Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planean, duela gutxi Nafarroako Gobernuak onartu duen hartan, ez da azaltzen La Negran parke eoliko bat egiteko aukera.

2. Enpresa berek sustatzen al dituzte parke eoliko horiek? Zein enpresak aurreikusi zuen edo aurreikusten du, halakorik bada, parke eolikoetako bakoitza instalatzea?

La Negrako Parke Eolkoa, Nafarroan, Energía Hidroeléctrica de Navarra S.A.k sustatzen zuen, eta Tausteko Parke Eolkoa (Sancho Abarca), ECOTECNIA, S.C.C.L.k.

3. Esan al daiteke Babestutako Naturguneko babespeneko bazter-eremua, alegia, erreserba naturaltzat jotako Caídas de la Negra alderdia (RN-37) ukituta dagoela?

Bi parke eoliko horiek ez dute inolako eraginik Caídas de La Negrako Natur Erreserbaren Inguruko Babesguneko lurretan.

4. Egin al du Nafarroako Gobernuak parke eoliko hori Tausteko udalerrian jartzeko espedientearen jarraipena?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Aragoi dagoen parke eolikoaren izapideak egiteko emandako urratsak ezagutzen ditu, Aragoiko Diputazio Nagusiko Ingurugiroaren eta Basa Bizitzaren Kalitatearen Zerbitzuekin egiten duen elkarlanari esker.

5. Egin al du Nafarroako Gobernuak bilera edo kontakturen bat komunitate mugakidearekin gai hori aztertzeke? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du jarduketaren bat egitea Aragoiko Administrazioaren irizpidearen aldaketa aztertzeke?

Nafarroatik hurbil dauden lurraldeekin erlazioa izan dezaketen herrialdeekin lankidetzan, informazioa trukatzeko eta ingurugiro-mailako irizpideak ezagutzen jarraitzea aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Zolia eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Zolia eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Zoliako eta Getzeko potasa meatze zaharretako aintziren egoerari buruz. Hona Ingu-rugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Zolia eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorren arrisku egoera?

Gatz sodiko-potasikoak ateratzeko, eraldatzeko eta lantzeko meatz-jardueren ondorioz, hirurogeiko hamarkadaren hasieratik 1997ko ekainean potasio-jarduera amaitu zen arte, zenbait azpiegitura eta instalazio sortu dira, ingurugiroan eragin handia dutenak.

Instalazio horien artean, Getze eta Zoliako dekantazio-aintzirak daude.

Potasio-jarduera amaitzearen ondorioz eta horrek Potasas de Subiza S.A. rentzat izan duen eraginaren ondorioz (1986tik aitzina, enpresa horrek jarraitu zuen lehen Potasas de Navarra S.A.k egiten zuen jarduerak), Posusak hitzarmen bat sinatu zuen Navarra de Medio Ambiente Industrial S.A. elkarte publikoarekin 1998ko urtarilean, gatz-lixibiazioen kudeaketarako eta meatz-instalazioak birgaitzeko proiektuak garatzeko.

Testuinguru honetan, aipatu bi instalazioak daude, joan den uztailetik aipatu enpresa publikoak jada kontrolatzen eta aztertzen dituenak.

Horri buruz, zenbait datu eta informazio interesgarri azpimarratzea komeni da.

Zoliako lohien bolumena eta ur-bolumena hiru milioi metro kubiko inguru dela kalkulatu da, bi

milioi eta milioi bat, hurrenez hurren; Getzeren kasuan, berriz, datuak ez dira hain zehatzak, baina guztira milioi bat metro kubiko izanen dira.

Gaur egun bi aintziren egoera oso desberdina da; Getzekoa beteta dago eta Zoliakoa bolumenaren % 25ean. Hala ere, ez batzuk ez besteak ez dute inoiz gainezkatzeko-prozesurik izan (eskerrak, mota honetako presetan halakoak larriak izaten baitira).

Kutsadurari dagokionez, ura sodio-kloruroz osatuta dago funtsean, eta lohiak, berriz, sodio kloruroz eta esterilez.

2. Aurreikusi al du Ingu-rugiro Departamentuak jarduketaren bat egitea lohien isuriek sor ditzaketen hondamendiak ekiditeko.

Nahiz eta (lehendik egin azterlanen arabera –Getzeko Aintzira– zein betetze-maila ikusita –Zoliako Aintzira–) hausteko arriskurik ez izan, aintzira horiek osatzen dituzten dikeen egonkortasuna eta erresistentzia aztertzeko lanak kontratatu dira abuztuan zehar, meatz-jarduera honi lotutako instalazio guztiak berreskuratzeko, laster.

Gainezka egin eta Elorz eta Sadar ibaiak gaitzeko arriskuaren aurrean, egunero kontrolatu eta jarraipena egiten dela azpimarratu behar da. Ondorioz, esan bezala, ez da gertatu gainezkatzeko eragindako igorpenik eta ez dago halako prozesuak izateko arriskurik.

3. Gobernuak abian jarri al du gune horien inguruan diren eskualdeak leheneratzeko proiekturen bat? Halako proiekturik egotekotan, noiz garatu behar da?

Aipatu egonkortasun-azterlanei esker (eta datozen hilabeetan egingen diren beste azterlan batzuei esker), instalazio horiek berreskuratzeko proiektuak xehetasun osoz finkatu ahal izanen dira, baita egingen diren jarduerak zehaztu ere; izan ere, jada Nafarroako Gobernuak Ingu-rugiro Departamentuak eta Potasas de Subiza, S.A.k egin bi azterlanetan orokorki aztertu baitira.

Zoliako Aintzirako instalazioaren kasuan, instalazioa berreskuratzea inguru honetarako egin den Hiri Bioklimatikoaren Proiektuak baldintzatuko du.

Getzeko Aintziraren kasuan, obretako indusketetatik eta eraisketetatik lortu materialekin egiten ari da berreskuratzea, eta, beraz, zona birgaitzeaz gain, xede horretarako zabortegeak ireki beharra ekiditen da.

Gutxienez 10 urte iraunen duen proiektu honi joan den urtarrilean ekin zitzaion, lehen faseko lanak esleituz, Nafarroako Obra Publikoen Kontrastisten Taldearekin lankidetzan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Feliz M^a Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Felix M^a Taberna Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Canal-4 Navarra” delakoaren jarduerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer legezko arauk babesten ditu Canal-4ko emanaldiak?

Lur-uhinen bidezko Toki-telebistari buruzko abenduaren 22ko 41/1995 Legeak babesten ditu “Canal-4 Navarra” telebistaren emanaldiak.

2.- Zer lurralde-muga ezarri zaie legez emanaldiei?

Lege horretako 3. artikulua hedadurako lurralde-esparrua zehazten du:

a.- Udal bakoitzeko biztanleen hirigune nagusiak mugatuko du lur-uhinen bidez toki-telebista bakoitzak hartutako lurralde-esparrua.

b.- Udalerrri bereko beste hirigunetara zabaltzeko ahal izanen da hedadura-esparrua, bertako biztanle-kopuruak dela eta. Aipatutako hiriguneak –ez besterik– hartuko dituzten beste estazio transmisore batzuk jarriz eginen da hedapen hau, beti ere horretarako espektro radioelektrikoa erabiltzeko aukera badago, arauak adierazitakoari jarraiki.

c.- Salbuespen gisa, eta Lege honetako 7. artikularen 4. atalean adierazitakoari jarraiki, lur-uhinen bidez toki-telebista bateko lurralde-esparru hertsia gainditzen duten hedadurak baimendu ahal izanen dituzte Autonomia Erkidego eskudunek.

3.- Zer legezko arauk babesten du Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek publizitatea sartzea emanaldi horietan?

Alde batetik, Lehendakari-tza Kontseilariaren urtarrilaren 10eko 1/1994 Foru Aginduak (honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko publizitate instituzionalaren kontratazio-arauak zehazten dira). Eta bestetik, Lehendakari-tzako Idazkari Nagusiaren 1994ko urriaren 24ko Ebazpenak (honen bidez, kontratazio-deialdien publizitaterako arauak erabakitzen dira).

4.- Zenbat diru eta zeren arabera jaso du Canal-4 enpresak Nafarroako Administrazio Publikotik (udal administrazioak kenduta), 1997 eta 1998 urteetan?

Pamplona Televisión (Canal 4) enpresak 1997 eta 1998 urteetan 3.048.000 pezeta jaso ditu Nafarroako Gobernutik, ondoko kontzeptu hauengatik:

– 1997 urtea: 2.000.000 pezeta, euskara komunikabideetan erabiltzeko laguntza gisa.

– 1998 urtea: 700.000 pezeta, euskara komunikabideetan erabiltzeko laguntzaren % 50 gisa, eta 348.000 pezeta, “Nafarroa, joatea itzultzea da” izeneko publizitate-irratieagatik.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du FMko emisoreak behin-behinekoz esleitzeko proposamenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

Galderen erantzun bateratua:

1.- Noiztik dauka prest Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak aipatu emisoreen adjudikazioaren gaineko erabaki-proposamena?

2.- Noiz bidali zaio aipatu proposamena Nafarroako Gobernuari?

3.- Zer gobernu-bilkuratan aurreikusi da FMko emisoreen behin-behineko adjudikazioei buruzko proposamenaren berri ematea?

1998ko ekainaren 18an, kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzen azterketa- eta balorazio-lanak amaitu zituen.

1998ko uztailaren 1ean, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak berari dagozko txosten-proposamenak egin zituen. Bertan, kontratazio-mahaiaren balorazio- eta kalifikazio-ondorioak biltzen ziren.

Nafarroako Gobernuak, beste hainbaten artean, Erabaki bat hartu zuen, 1998ko uztailaren 6an egindako bileran. Erabaki haren bidez “Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak azaroaren 10ean eman 336/1997 Foru Dekretuaren 5.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, modulazio-frekuentziako uhin metrikoetan soinu-zko irrati-difusio-ko zerbitzua emateari buruzko proposamena ezagutuz eman zuen”.

4.- Herrilan Kontseilariak, edo hala izatekotan, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Parlamentu honetara agertzea adjudikazioen arrazoi berri emateko, alde zurretik?

Kontzesio gisako zerbitzu publiko baten kudeaketa-kontratua denez, Kontratuei buruz indarrean dagoen legeriak arautzen du garapen osoa, eta ez da beharrezkoa Parlamentura agertzea adjudikazioen arrazoi berri ematera, alde zurretik.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuan gai horretaz arduratzen den Batzordera joan zen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria, aurreko 11n, Lehiaketako emaitzen berri ematera, “Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Ciurriz Foru Parlamentarioak eskatuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

Ondoko galdera hauen erantzun bateratua:

- 1.- Nafarroako Gobernuak izan al du Herrilan, Garraio, eta Komunikazio Kontseilariak aipatu emisoreen adjudikazioez eman duen erabaki-proposamenaren berri?
- 2.- Noiz izan du Nafarroako Gobernuak aipatu proposamenaren berri?
- 3.- Zer gobernu-bilkuratan aurreikusi da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak FMko emisoreen behin-behineko adjudikazioei buruz egin duen proposamena aztertzea?

1998ko ekainaren 18an, aurkeztutako eskaintzen azterketa- eta balorazio-lanak amaitu zituen kontratazio-mahaiak.

1998ko uztailaren 1ean, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak berari dagozkion txosten-proposamenak egin zituen. Bertan, kontratazio-mahaiaren balorazio- eta kalifikazio-ondorioak biltzen ziren.

Nafarroako Gobernuak, beste hainbaten artean, Erabaki bat hartu zuen, 1998ko uztailaren 6an egindako bileran. Erabaki haren bidez “Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak azaroaren 10ean eman 336/1997 Foru Dekretuaren 5.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, modulazio-frekuentziako uhin metrikoetan soinuzko irrati-difusioko zerbitzua emateari buruzko proposamena ezagutuz eman zuen”.

4.- Nafarroako Gobernuak, edo hala izatekotan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, aurreikusi al du Parlamentu honetara agertzea adjudikazioen arrazoen berri emateko, aldez aurretik?

Kontzesio gisako zerbitzu publiko baten kudeaketa-kontratua denez, Kontratuari buruz indarrean dagoen legeriak arautzen du garapen osoa, eta ez da beharrezkoa Parlamentura agertzea adjudikazioen arrazoen berri ematera, aldez aurretik.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuan gai horretaz arduratzen den Batzordera joan zen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria, aurreko 11n, Lehiaketako emaitzen berri ematera, “Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Ciurriz Foru Parlamentarioak eskatuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko utzailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratibo baten eskaerari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da aipatu erabakiaren hitzez hitzeko edukia?

Nafarroako Gobernuak 1998ko utzailaren 15ean egindako bilkuran ondokoa erabaki zuen aho batez:

“1.- Eduardo García de Enterría abokatuari txosten juridiko bat egiteko eskatzea. Txosten honetan, Entzutegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Aretoak (Lehen Sailak) Itoizko urtegia dela eta, Nafarroako Foru Komunitateak parte hartzen dueneko, 1/136/91 eta honi erantsitako administrazioarekiko auzien errekurtsioei buruzko epaia gauzatzeko piezan, ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea dela eta, Nafarroako Naturguneei buruzkoa, konstituzionaltasunaren inguruan planteatutako zalantzei dagozkion alderdi guztiak, prozedurazkoak zein funtsari dagozkionak, jaso behar dira.

2.- Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuari agintzea Eduardo García de Enterría jaunari emateko honek behar dituen eta haiek dituzten aurrekariak eta dokumentuak.

3.- Dagokion ordainsaria, gehienez ere 4.000.000 pezetakoa, 01100-2263-1212 kontusailako 01260-6 (Administrazioarekiko Auzietarako Gastu Juridikoak) lerroaren kontura ordaintzea.”

2.- Hala bada, zein da kontratuaren objektua eta, zehazki, zer lanbide-jarduketa hartzen du kontratazioak bere baitan?

Kontratuaren xedea Entzutegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Aretoak (Lehen Sailak) Itoizko urtegia dela eta, Nafarroako Foru Komunitateak parte hartzen dueneko, 1/136/91 eta honi erantsitako administrazioarekiko auzien errekurtsioei buruzko epaia gauzatzeko piezan, ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea dela eta, Nafarroako Naturguneei buruzkoa, konstituzionaltasunaren inguruan planteatutako zalantzei dagozkion alderdi guztiak, prozedurazkoak zein funtsari dagozkionak, jasotzen dituen txosten juridiko bat idaztea da.

3.- Kontratuaren objektuari gagozkiolarik, Itoizko proiektuaren edo horrekin loturiko jarduketan zer espediente administratibo edo juridiko hartuko du?

Galdera honi aurrekoan erantzun zaio.

4.- Zeintzuk dira kontratuaren betetze-epea eta iraunaldia?

1998ko utzailaren 15ean sinatutako hitzarmenean adierazten zen txostena entregatzeko epea 1998ko utzailaren 20an amaitzen zela.

5.- Zeintzuk dira horren baldintza orokorrak eta baldintza bereziak?

Nafarroako Gobernuak ez ditu oraindik onartu egingen dituen kontratuak araupetuko dituzten baldintza administratibo orokorreiei buruzko pleguak. Galderan aipatzen den kontratua araupetu duen baldintza administratibo berezien pleguak ondoko edukia du:

“1.- XEDEA

Entzutegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Aretoak (Lehen Sailak) Itoizko urtegia dela eta, Nafarroako Foru Komunitateak parte hartzen dueneko, 1/136/91 eta honi erantsitako administrazioarekiko auzien errekurtsioei buruzko epaia gauzatzeko piezan, ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea dela eta, Nafarroako Naturguneei buruzkoa, konstituzionaltasunaren inguruan planteatutako zalantzei dagozkion alderdi guztiak, prozedurazkoak zein funtsari dagozkionak, jasotzen dituen txosten juridikoa egiterakoan bete beharreko hitzarmen ekonomiko-administratiboak finkatzea da Plegu honen xedea.

2.- AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua 4.000.000 pezeta-koa izanen da gehienez ere, BEZa barne.

Kontratu honetako lanak 1998ko gastuen aurrekontuko ondoko kontusailaren kargura finantzatuko da: 01100-2263-1212, Administrazioarekiko Auzietarako Gastu Juridikoak, 01260-6 lerroa.

3.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural zein fisikoek, espainiar zein atzerritarrek dute kontratatze gaitasuna, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte: jarduteko erabateko gaitasuna izan, dagokion sailkapena edo, horren ezean, behar besteko kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatu eta, azkenik, Kontratuari buruzko 13/86 Foru Legeko 8. artikuluan aipatzen diren egoeretako batean (edo indarrean dagoen legedian zehaztutako beste edozeinetan) ez egotea.

4.- ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez eta kontratatzen duen organoarekiko lehiarik gabe esleituko da, indarreko legeriarekin bat etorritik.

5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

a) Nortasun Agiria, edo notarioak edo dagoen administrazioak legeztatutako kopia, edo legez ordezkoa den beste agiriren bat.

b) Lizitazaitzailearen edo, hala badagokio, bere ahaldu edo ordezkariaren adierazpena, esanez, bera delarik erantzule, ez duela kontratatzea eragozten duten edo kontratatzearekin bateraezinak diren gorabeherarik.

c) Kontratistak bere alorrean duen izen on nabarmenak (hura hautatzea eragin baitu) bere kaudimen teknikoa egiaztatzen du.

d) Kontratistaren kaudimen ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) Enpresak indarreko xedapenek ezartzen dizkieten zergak ordaindu dituela azaltzen duen ziurtagiri ofiziala, esleipena eman baino gehienez ere sei hilabete lehenago luzatua.

f) Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzak luzatutako ziurtagiria, enpresak indarreko xedapenek ezartzen dizkieten Gizarte Segurantzarekiko betekizunak bete dituela azaltzen duena, esleipena eman baino gehienez ere sei hilabete lehenago luzatua.

Eskatutako agiriek jatorrizkoak izan behar dute edo notarioak nahiz dagokion administrazioak kautotutako kopiak.

6.- FIDANTZA

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu baten bidez esleitzen den aholkularitza-kontratuaren denez eta kontuan hartuz kontratatutako lan osoa behar bezala eginga jasotakoan ordainduko dela, kontratistak ez du behin betiko fidantza eman beharrik.

7.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Onetsi eta hurrengo hogeita hamar egunetan formalizatuko da kontratua, 161/1991 Foru Dekretuko 11. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, notarioak edo administrazioak emandako dokumentu baten bidez.

Esleipen hartzaileari leporatzeak diren kausen ondorioz, kontratua gauzaterik ez balego, Kontratazio Organoak kontratu hori bertan behera uztea erabakiko du, interesdunari entzun ondoren, eta dagozkion erantzukizunak eskatuko zaizkio.

8.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATUA

Ezin izanen da kontratuaren lagapenik edo azpikontraturik egin, kontratu honek izaera pertsonalista baitu.

9.- KONTRATATZEN DUEN ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZA

Administrazio kontratugileak kontratuaren xedea behar bezala burutu eta gauzatzeko kontratistari eskatzen dizkion zerbitzu profesional guztiak (azalpenak emateko bilkurak, esate baterako) burutu beharko ditu kontratistak, inolako kosturik gehitu gabe.

10.- LANEN JABEGOA ETA USTIAPENA

Kontratu hau burutzeko lantzen diren dokumentu guztiak Administrazio kontratugilearenak –ez besterenak– izanen dira.

Kontratistak ezin izanen du material hori erabili, ezta lanotako datu edo dokumenturik argitaratu, zabaldu edo besteri eskuratu.

Era berean, Administrazio kontratugileak bereztat gordetzen du esleipen hartzailearen esku utzitako lanak ustiatzeko eskubidea, eta azken honek debekatuta du lanok inolaz ustiatzea.

11.- KONTRATISTARI ZUZENDUTAKO AGINDUAK

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko langileek adierazitako agindu eta jarraibideak

betetzera behartuta egonen da kontratista uneoro, bai agindutakoari berari dagokionez, bai agindutakoa betetzeko moduari dagokionez ere.

Departamentu horrek kontratan jasotako lanen gaineko kontrola burutuko du, egoki irizitako langileen bidez, eta kontratistak kontrol hori ahalbidetzeko konpromisoa hartuko du.

12.- KONTRATUAREN GAUZAPENA

Baldintza hauei estuki loturik eta Lehendakari-tza eta Barne Departamentuko langileek idatziz emandako jarraibideekin bat etorritik burutuko dira lanak, eta kontratistak men egin beharko dio indarreko legeriak Administrazio kontratugileari kontratua interpretatu, aldatu eta bertan behera uzteko ematen dion ahalmenari.

Hala balegokio, Nafarroako Gobernuak kontratua burutzeko utzitako dokumentazioa itzuli egin beharko zaio lanak jasotzerakoan. Dokumentazio horren balioa argigarria da soilik; beraz, berau erabiltzea esleipen hartzailearen arrisku eta zoria-ren esku geratzen da.

13.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA ETA ZIGORRA

Kontratua gauzatzeko epea 1998ko uztailaren 20an amaituko da.

14.- PREZIOEN BERRIKUSKETA

Ez dagokio.

15.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Lanak aldi bakar batean ordainduko dira, kontratatutako lana jaso eta ordainsariaren faktura aurkezten den egunetik bi hilabetera gehienez ere.

Foru Komunitateko Administrazioak ordaindu beharreko faktura aurkeztu eta bi hilabeteren epean kontratistari ordainduko ez balio, epea amaitzen den egunetik aurrera atzerapenari dagokion interesak ordaindu beharko ditu.

16.- KONTRATISTAREN KONTURA DIREN GASTUAK

Kontratistak ondoko gastuak ordaindu beharko ditu, besteak beste:

- Erakundeengandik edo partikularrengandik baimenak lortzeko eta dokumentuak edo bestelako informazioa eskuratzeko egin beharreko gastuak.

- Indarreko xedapenei jarraiki ezartzeokoak diren zergak, eskubideak, tasak, ordainak eta bestelako karga eta ordainarazpenak, kontratua-ren edo hura gauzatzearen ondoriozko direnak.

17.- ARRISKUA ETA ZORIA

Kontratu hau gauzatzean, esleipen hartzailearenak dira arriskua eta zoria, eta hark ez du galera edo matxurengatik kaltordainak jasotzeko esku-biderik izanen, ezinbestekoetan izan ezik.

Kontratistak ezin izanen du, inolako aitzakiaz ezta akats edo hutsegiteagatik ere, bere eskaintzako prezioak handitzeko edo kontratuko baldintza ekonomikoak aldatzeko eskatu.

18.- KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BERARI LEPORATZEKOAK DIREN KAUSEN ONDORIOZ KONTRATUA DESEGITEAREN KALTEORDAINETAN

Kontratistaren erruz kontratua bertan behera geldituko balitz, Nafarroako Gobernuari eragindako kalteordainak ordaindu beharko dizkio.

19.- KONTRATISTAREN GIZARTE- ETA LAN-ALORREKO BETEBEHARRAK

Kontratista behartuta dago laneko, gizarte-segurantzako, eta laneko segurtasun- eta higienera- loko indarreko xedapenak betetzera.

Kontratistak betekizun horiek beteko ez balitu, horrek ez lioke inolako erantzukizunik sortuko Administrazioari.

20.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratua gauzatu eta burutzean, komeni diren hobekuntzak proposatu ahalko ditu kontratistak, idatziz betiere.

Proposatutako hobekuntza beharrezkotzat joko balitz, Kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legean kontratuak aldatzeari buruz zehaztutakoari jarraikiko litzaioke. Aldaketak burutzeko, kontratuan aurrekusi ez diren lanak egin behar izatekotan, berauei dagokien prezioa Administrazio kontratugileak finkatuko du, prezioak finkatzeko izapide kontrajarria egin ostean.

Baldintza hauetako aurreko paragrafoetan finkatutakoaren kaltetan izan gabe, dagokion organuak kontratua araupetzen duen baldintza-sortan aldaketak sartzea beharrezkotzat joz gero, proposamen bat idatziko du, proposamen hori justifikatzen, deskribatzen eta balioesten duten dokumentuak erantsiz, kontratazio-organuak onar dezan, esleipen hartzaileari entzun ondoren, Kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legeko 56. artikuluan finkatutakoari jarraiki.

Kontratazio-organuaren baimenik gabe kontratuan aldaketarik eginez gero, kontratistaren erantzukizuna izanen da hori, aldaketa horietan parte hartu duten funtzionariengana ere iristeari kalterik egin gabe. Aurretik salbuetsita daude Kontra-

tuei buruzko Foru Legeko 56.3. artikuluko bigarren paragrafoan aipatutako aldaketak egitea.

21.- LAN OSAGARRIAK

Kontratua burutzen ari den bitartean, Administrazioak esleitutako kontratuan jasotzen ez den bestelako lan osagarriak egitea egoki iritziz gero, beste kontratazio bat egin beharko da. Egin beharreko lanak kontratuaren prezioaren ehuneko 20 gaintzen ez badute, salbuetsita daude kontratu berri bat egitetik, eta kontratista nagusiarekin negoziatuko dira, kontratuan agertzen diren prezioekin bat etorritik, edo, hala badagokio, modu kontrajarrian finkatutakoekin.

Ondokoak lan beharrezkotzat jotzen dira:

– teknikoki edo ekonomikoki, Administrazioari kalte handiagoak eragin gabe, kontratu nagusitik bereizi ez daitezkeenak.

– bereizi badaitezke ere, funtzionatu ahal izateko ezinbestekoak direnak.

22.- LANAK JASOTZEA

Kontratatutako txostena aurkeztu eta 15 eguneko epean jasoko dira lanak.

Lanean hutsunerik aurkitzen ez bada eta hitzartutakoari jarraiki egin dela iritziz gero, hartutzat joko da, eta bermearen epea hasiko da.

Kontratutako lana egoki egin izanaren erantzulea kontratista izango da, eta lana egin bitartean Administrazioaren ordezkariak hura aztertu izanak ez dio eskubiderik emango edo erantzukizun horretatik salbuetsiko.

Lanak jaso izanaren akta idatziko egingo da, eta egindako oharrak jasoko dira han.

Dagokion kitapena adostu eta kontratistari jakinaraziko zaio, eta gelditzen den saldoa ordainduko zaio.

23.- BERMEAREN EPEA

Bermearen epea hilabetekoa izanen da lana jasotzen den egunean hasita.

Egindako lanean akatsik edo hutsunerik antzemanen balitz, Administrazioak egokitzat jotzen ez dituenak ezetsi ahal izanen ditu.

24.- BERMEAREN EPEAREN AMAIERA

Bermearen epea amaitu eta Kontratazio Organuak kontratuaren gainean eragozpenik adierazi edo salaketarik egiten ez badu, lanaren gaineko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da kontratista.

25.- BALDINTZA TEKNIKOAK

Agindutako lanaren izaera sortzailea eta irismen orokorra dela eta, plegu honetako 1. baldintzan adierazitakoari jarraiki, ez dago alderdi teknikoak gehiago zehaztu beharrik.

26.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza administratiboen plegu honek, Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko 15/1986 Foru Legeak, apirilaren 25eko 161/91 Foru Dekretuak eta aplikatzekoa den gainerako legeriak arautuko dute baldintza administratibo hauetako kontratua.

27.- IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA ESKUMENA

Plegu honetan azaltzen den lan kontratazioak izaera administratiboa du. Beraz, lana egitearen ondorioz eta Plegu honetako xedapenen gaineko interpretazioen ondorioz sor litezkeen gorabehera guztiak kontratazio-organoak ebatziko ditu aurrena, eta honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izanen da Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibide-etarko Salan, Nafarroako Gobernuan errekurtsio arrunta aurkeztu ostean.

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an.”

6.- Zein da kontratazioarako administrazio-organoa?

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria.

7.- Zein da kontratuaren izenpetze-data?

1998ko uztailaren 15a.

8.- Zein da kontratazio prozedura?

Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen. Izan ere, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeko 210.1.b) –izaera intelektualeko kontratua izanik ezin liteke berau esleitzeko bestelako prozeduratan oinarritutako baldintzarik finkatu– eta 211.c) –premiazko-tasun handikoa delako, auzitegietan dagoen auzi orok bete beharreko prozesu-epeen preklusibotasunaren ondorioz– artikuluetan aipatutako egore-etako bat zen.

9.- Zein dira kontratazioaren arrazoiak?

Zuzenbide Konstituzionalean aditua den abokatu batek emaniko txosten juridiko bat izatearen egokitasuna.

10.- Zer kontusailen kontura ordainduko da?

Gastu honek dagokion esleipena du aurrekontuko kontusail honetan: 01100-2663-1212, Admi-

nistrazioarekiko Auzietarako Gastu Juridikoak, 01260-6 lerroan.

11.- Zenbatean hitzartu edo baliotsei da txostenaren kostua?

4.000.000 pezetatan (BEZa barne).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak 1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco jaunak, “Nueva Izquierda” alderdikoak, idatziz erantzuteko galdera egin du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren argitalpenari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ea egin duten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta funtsezko eskubideei buruzko beste lege-testu batzuk biltzen dituen argitalpena. Hala bada, zenbat ale eta zer testu argitaratu diren.

2.- Aurrekoaren erantzuna ezezkoa bada, noiz argitaratzeko asmoa duten eta zenbat ale emanen diren argitara.

3.- Noiz aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak bukatuko dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeari buruzko azterlana.

Une honetan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren argitalpen bat prestatzen ari gara. Berau gizarte osoari zuzenduko zaio oro har eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasleei bereziki. Gainera, urteurren horren berri ematen duen kartel bat prestatzen ari gara halaber.

40.000 ale argitaratuko dira guztira. Hauetatik 30.000 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean banatuko dira, beste 6.000 Unibertsitateko ikasleen artean eta, azkenik, gainerako 4.000 aleak erakunde eta entitateen artean. Bestalde, kartel bat argitaratuko da abenduaren 10ean ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urteurrenaren berri emateko eta 1.000 ale banatuko dira.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentario jaunak hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Arrayoz Lezaun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer arategi ezarri behar zaie inori tatuajeak egiten dizkieten lokal eta pertsoneri?

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, osasunari buruzkoak, udalek osasun-alorrean dituzten eskumenen artean, ileapaindegiak, saunak eta norberaren higienerako zentroen gaineko kontrola aipatzen du. Tatuajeak egiten dituzten establezimenduak ere jarduera-esparru honetan sartu behar dira (kontuan izan esparruko jarduera asko eta asko estetika-ingurukoak direla).

Beste jarduera batzuetan bezala, bada administrazio-betebehar bat: funtzionatu ahal izateko, udalak emandako irekitzeko baimena lortu behar da.

Osasun-zentroak ez direnez gero, jardun ahal izateko ez dute behar arlo horretan aritzeko administrazio-baimena eta Foru Administrazioak ez du ezarri baimena emateko bestelako prozedurarik.

2.- Osasuneko Foru Administrazioak ba al du tatuajeak egiten dituzten lokal eta pertsonen zerrendarik?

Lanean hasteko, Foru Administrazioak emandako administrazio-baimena eskatzen ez zaienez,

ez dago honelako establezimenduen zerrendarik. Nolanahi ere, azken hilabeteotan mota honetako hainbat establezimendu ikuskatu dituzte Osasun Departamentuko teknikariek, tatuajeak zernolako higiene- eta osasun-baldintzetan egiten diren ikusteko eta, berauek baldintza egokietan egin ezean, osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak eragozteko neurriak aztertzeko.

3.- Erabilitako materialaren erosketaz, hori bota, berriztatu eta abarrez, ba al dago kontrolik?

Produktuak saldu besterik egiten ez duten establezimenduek –ez tatuajeak egiten dituztenek– jarduera horren berri eman beharko diote Osasun Departamentuari, osasun-produktuak arautzen dituen martxoaren 1eko 414/1996 Errege Dekretuaren eraginpean baitaude produktu hauek.

Nafarroan ez da gaurdaino halako produktuen salmentari buruzko jakinarazpenik aurkeztu, eta Foru Administrazioak ez du halakoren berri.

4.- Tatuajeak egiten dituztenen titulazioaren berri ba al da, eta, hala bada, kolegiaturik dauden edota erantzukizun-asegururik duten?

Honelako establezimenduen erregistrorik ez dagoenez, ez dago eskatutako informaziorik.

5.- Era berean, bezero bakoitzari dagokion fitxa bete eta artxibatzea exijitzen al da, berezoaren aurrekariekin, aurkako erreakzioekin, egindakoaren nolakotasunekin eta adin txikikoentzako baimenarekin?

Osasun Departamentuak, udalekin elkarlanean, estetika-zentroetan, eta bereziki tatuajeak egiten direnetan, jardun desegokien ondorioz sortutako gaixotasunei aurre hartzeko jarduketa egokienak aztertzeko asmoa du. Jarduketa horien artean, bezeroen erregistro bat osatzeko eskatzen ahal zaie, eta tatuaje bat egiteko adostasuna idatziz adierazi beharko dute bezeroek.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentario jaunak erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José María Ezpeleta Martínez Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Erradiologiako Teknikari Espezialistak direla-eta hartu behar diren neurriei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Erradiologiako Teknikari Espezialisten funtzioen gaia Nafarroako 3 zenbakiko Lan arloko Epaitegiak erabaki zuen, gatazka kolektiboko erreklamazioan, 1992ko urtarrilaren 20an, ondoko hau adierazi ondoren: “Erradiodiagnostikoko Teknikari Espezialistek beste areto batzuetan lan egiteko gaitasuna izanen dute, baina eskatzen zitzaizen esleipen zehatzak edo euren eskumenak gehitzeak ezinen ditu Erakundearen zuzendaritza- edo antolaketa-printzipioetan eragin”.

Egindako bigarren galderarekin loturik, Parlamentario jaunak aipatu duen epaiko 2. zuzenbide-oinarrian adierazitakoari jarraitzen diogu; “Errekurritutako epaiak adierazi bezala, 1132/1990 Errege Dekretuaren bidez barne-ordenamendura eraman duten Euraton 84/466 Zuzentarauak ondoko hau exijitzen du: mediku-jarduera batean egindako erradiazio ionizatzaile guztien erabilerak medikuen, odontologoek edo jarduera horretan aritzeko gai diren bestelako profesionalen ardura-egitea. Ez dirudi zalantzan jar daitekeenik, xedapen honetan ezarritako baldintza kasu horretan betetzen dela; izan ere, agindutako zerbitzuak bat datoz egiaztatutako 5. gertaera frogatuan xehetasunez deskribatutako eskaerekin, eta ospitaleko medikuntzaren esparruan eskaintzen dira”.

Parlamentario jaunak egindako galderan ondo adierazi bezala, 1996ko apirilaz geroztik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zalantzarik gabeko borondatea erakutsi du, Foru Komunitatean Espainiako gainerako lekuetan hartutako norabidean lan egiteko, eta une oro Osasuneko Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan hartutako erabakiak jarraitzeko. Gaur egun irizpideak ez dira aldatu eta aipatutako zirkularrak indarrean jarraitzen du.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Caste-

jonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan, jakinarazten dizut gai hori ez dagokiola Príncipe de Viana erakundeari eta horri buruz ez dela iradokizunik eskatu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Aldi Baterako Laneko Enpresei (ETT) buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri,

Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Foru Komunitatean jardun ahal izateko Lan eta Gizarte Gaierako Ministerioak baimendutako Aldi Baterako Laneko Enpresen zerrenda erantsi da, bai eta jarduera abiatu den data ere.

2. Nafarroako Gobernuak baimendutako Aldi Baterako Laneko Enpresen zerrenda erantsi da.

3. Eskura jarritako kontratuekin, eta Nafarroako Gobernuak baimendutako Aldi Baterako Laneko Enpresek eta Lan Ministerioak Nafarroan kontratatutako langileekin lotutako datu estatistikoak erantsi dira.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Enplegu Estatistiketan Aldi Baterako Laneko Enpresek duten eraginari dagokionez, INEM erakundeak ez du inpaktuaren balorazio estatistikorik. Horrek, hala ere, eta Aldi Baterako Laneko Enpresen

bidez egindako kontratuekin loturik 1997an egindako kontratu guztiak kontuan hartuz, argi uzten du bere jarduerak enplegua dinamizatzen duela baina ez lan-kalitatea.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOAK BAIMENDUTA
1998-06-23AN NAFARROAN FUNTZIONATZEKO BAIMENA
DUTEN ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESEN ZERRENDA, ETA
ENPRESA HORIEK LANEAN HASITAKO DATA.

• ADECCO, TT, S.A. EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL (lehen ECCO, TT, S.A. EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL)	1994-07-22
• MANPOWER TEAM EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1997-03-06
• LABORMAN EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1994-09-23
• FLEXIPLAN, S.A. EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL	1994-10-18
• FASTER IBÉRICA EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1994-10-28
• BICOLAN EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1997-02-10
• PEOPLE TRABAJO TEMPORAL, EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1996-12-02
• TRABATEM, EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1996-12-10
• INTEREUROPEA DE TRABAJO TEMPORAL, ETT, S.L.	1995-03-31
• SERWORK EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1995-05-26
• TUTOR RECURSOS HUMANOS EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1997-01-16
• TEMPORING EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1997-02-03
• UNIDAD DE MANTENIMIENTO OCUPACIONAL UMANO, ETT, S.A.	1995-09-22
• LAN BILA BULEGOA EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1997-02-26
• ANANDA GESTIÓN EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L. (lehen TEMPO FUTURO, ETT, S.L.)	1995-12-15
• GRUPOMPLEO, EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1996-01-16
• WORKERS CONSULTING EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.	1996-03-27
• GESTIÓN TEMPORAL DE RECURSOS HUMANOS, ETT.S.L. (GESTER)	1994-10-14
• SELECT RECURSOS HUMANOS EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.	1997-02-10
• TRATENA, EMPRESA DE CONTRATACIÓN TEMPORAL, S.L.	1995-08-09
• EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL W-ZITAP, S.L.	1997-01-04
• EMPRESA DE CONTRATACIÓN GRUPOTEM, ETT, S.L.	1995-07-21
• ENTIDAD DE COLABORACIÓN ADMINISTRATIVA, ETT, S.A. (ECATEMP)	1997-12-26
• ADMINISTRACIÓN PROFESIONAL DEL EMPLEO ETT, S.L.	1997-09-16

NAFARROAKO GOBERNUAK BAIMENDUTAKO
ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESAK

• SERCOTEM SERVICIOS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0001/94
Sozietatearen helbidea	Zaragozako etorbidea, 27, behea, Iruña
Telefonoa	948-23.40.84
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	1994-09-29 / 1995-09-28
	*1. luzapena: 1995-09-29 / 1996-09-28
	*2. luzapena: 1996-09-29 / 1997-09-28
	* Mugagabeko baimena: 1997-09-27

• FIDELIO ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0004/94
Sozietatearen helbidea	Pio XII.aren etorbidea, 18, atzealdea, Iruña
Telefonoa	948-17.74.90
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	1994-12-17 / 1995-12-16
	*1. luzapena: 1995-12-17 / 1996-12-16
	*2. luzapena: 1996-12-17 / 1997-12-16
	* Mugagabeko baimena: 1997-12-17

• PROMOCIÓN DE EMPLEO NAVARRA ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0008/95
Sozietatearen helbidea	Tutera kalea, 12, 7.a, Iruña
Telefonoa	948-23.02.05
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	1995-10-30 / 1996-10-29
	*1. luzapena: 1996-10-30 / 1997-10-29
	*2. luzapena: 1997-10-30 / 1998-10-29

• TRALUTEMP ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0009/96
Sozietatearen helbidea	Pio XII.aren etorbidea, 18, behea, Iruña
Telefonoa	948-22.69.71
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	1996-10-24 / 1997-10-23
	*1. luzapena: 1997-10-24 / 1998-10-23

• PROYSER ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0011/98
Sozietatearen helbidea	Ezkirotz kalea, 30, atzealdea, Iruña
Telefonoa	948-15.53.72
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	1998-04-20 / 1999-04-19

• CENTRO DE TRABAJO TEMPO ETT, S.L.

Baimen zenbakia	75/0012/96
Sozietatearen helbidea	Urdazubiko monasterioa, 17, behea, Iruña
Telefonoa	948-17.83.66
Jarduketa eremua	Nafarroa
Baimendutako jarduketaldia	Mugagabeko baimena: 1998-04-15

ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESAK

	1994	1995	1996	1997	1998 05-31 bitarte
Nafarroako Gob. baimenduak (ABLE)	4	8	6	5	6
Eskura jarritako kontratuak	107	877	2.581	4.582	2.137
Langile kontratatuak	268	1.088	2.534	4.398	1.996
Lan Ministerioak baimenduak Nafarroa eta beste autonomia erkidego batzuek)					
	3	11	16	24	24
Eskura jarritako kontratuak	596	4.972	15.001	23.323	12.627
Langile kontratatuak	702	3.828	11.632	16.842	8.548
Kontratuak, guztira					
	703	5.849	17.582	27.905	14.764
Langileak, guztira					
	970	4.916	14.166	21.240	10.544

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jardueri dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jardueri dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruz egingandako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jardueri dirulaguntza emateko aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Kontusailen exekuzio-egoera

30480-1 kontusaila	1998-09-02an	0 pta
30490-9 kontusaila	1998-09-02an	15.438.226 pta

30480-1 kontusaila

Uztailaren 23ko 208/1998 Foru Aginduan jasota dago kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerak egiten dituzten Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia. Aipaturiko Foru Aginduan eskabideak aurkezteko epea ere finkaturik dago: urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehenago; beraz, eskabideak jaso ondoren, exekuzioari ekinen zaio.

30490-9 kontusaila

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak jasotako zenbatekoak, zenbateko horiek eta zertarako erabili diren zehatz azalduta.

Jasotako zenbatekoak hauek dira: 3.500.000 pezeta, 3.963.589 pezeta eta 5.710.859 pezeta (Guztira: 13.174.448 pezeta)

3.500.000 pta.ko kopurua emandako gehieneko kopuruaren % 25ari dagokio -14.000.000 pezeta-, urteko azken hiruhileko gastuen kontura justifikatuko baitira.

Horra zeri dagokion 3.965.589 pezetako kopurua:

	1998ko lehen hiruhilekoan aurkeztutako gastuak	Dirulaguntza (% 80)
Teknikariak	2.797.228 pta	2.237.783 pta gehienez ere 7.000.000 pta
Aholkularitza juridikoa	1.113.800 pta	891.040 pta gehienez ere 2.500.000 pta
Argitalpenak, hitzaldiak eta abar	93.771 pta	75.017 pta gehienez ere 2.400.000 pta
Funtzionamenduko gastuak	949.686 pta	759.749 pta gehienez ere 2.100.000 pta
GUZTIRA	4.954.485 pta	3.963.589 pta

Horra zeri dagokion 5.710.583 pta.ko gastua:

	1998ko bigarren hiruhilekoan aurkeztutako gastuak	Dirulaguntza (% 80)
Teknikariak	5.083.583 pta	4.066.866 pta gehienez ere 7.000.000 pta
Aholkularitza juridikoa	1.113.800 pta	891.040 pta gehienez ere 2.500.000 pta
Argitalpenak, hitzaldiak eta abar	352.292 pta	281.040 pta gehienez ere 2.400.000 pta
Funtzionamenduko gastuak	588.900 pta	471.120 pta gehienez ere 2.100.000 pta
GUZTIRA	7.138.575 pta	5.710.859 pta

Beste kontsumitzaileen elkarte batzuk jasotako zenbatekoak; zenbateko horiek eta zein jardueretako eman diren zehaztuta.

Emandako zenbatekoak honako hauek dira: 575.000 pezeta, 491.602 pezeta eta 1.197.176 pezeta “Santa María la Real” etxeakoandreen elkarteari dagozkio zenbateko horiek guzti-guztiak (2.263.778 pezeta).

575.000 pezetako kopurua emandako gehieneko zenbatekoaren % 25ari dagokio -2.300.000 pezeta-, urteko azken hiruhileko gastuen kontura justifikatuko baitira.

Horra zeri dagokion 491.602 pta.ko kopurua:

	1998ko lehen hiruhilekoan aurkeztutako gastuak	Dirulaguntza (% 80)
Teknikariak	80.000 pta	64.000 pta gehienez ere 110.000 pta
Aholkularitza juridikoa	0 pta	0 pta gehienez ere 2.500.000 pta
Argitalpenak, hitzaldiak eta abar	163.800 pta	131.040 pta gehienez ere 1.102.000 pta
Funtzionamenduko gastuak	370.703 pta	296.562 pta gehienez ere 450.000 pta
GUZTIRA	614.503 pta	491.602 pta

Horra zeri dagokion 1.197.176 pta.ko kopurua:

	1998ko bigarren hiruhilekoan aurkeztutako gastuak	Dirulaguntza (% 80)
Teknikariak	157.500 pta	126.000 pta 46.000 pezeta zuten kobratzeko, eta hori eman zitzaien gehienez ere 110.000 pta
Aholkularitza juridikoa	420.000 pta	336.000 pta gehienez ere 580.000 pta
Argitalpenak, hitzaldiak eta abar	827.173 pta	661.738 pta gehienez ere 1.102.000 pta
Funtzionamenduko gastuak	328.436 pta	262.748 pta 153.438 pezeta zuten kobratzeko, eta hori eman zitzaien gehienez ere 450.000 pta
GUZTIRA	1.733.109 pta	1.197.176 pta

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kon-
seilaria: Ramón Bultó Llevat

Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erauzteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erauzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erauzteari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer neurri hartu du edo hartuko du Nekazaritza Departamentuak bruzelosi-agerraldiaren ara-

zoa konpontzeko, Sakanako abeltzain askori eragiten baitio?

Ukituta dagoen behitegia José Ignacio Beltza Aldasoro jaunaren jabetzakoa da. Haragitarako behien ustategia da, erantsita gizendegia duena, hazteko aziendaren eraikinaren aldamenean, hamabi bat metroko korridore batekin separatuta.

Hazteko aziendari, ganadu-saneamenduko kanpainetan barne hartuta egonik, azken urte eta erdian jarraian adierazten diren 21 kontrol-probak egin zaizkio:

1. 1997. urteko otsailaren 6an 106 abelbururen laginak hartu ziren, emaitza negatiboarekin.

2. 1997. urteko otsailaren 28an, Leonen tratulari bati erositako 11 behiren laginak hartu ziren, eta horietako 3k emaitza positiboa eman zuten bruzelosiari buruzko analisisietan.

3. 1997. urteko apirilaren 12an 116 abelbururen saneamendua egin zen berriro, eta horietako 3tan analisisiek ez dute bruzelosiari buruzko emaitza argirik ematen.

4. 1997. urteko apirilaren 21ean erosketa-behi bat saneatu zen, eta emaitza negatiboa eman zuten.

5. Zalantzazkotzat hartutako 3 behien laginak apirilaren 22an eta maiatzaren 13an berriro hartu ziren, eta emaitza negatiboa eman zuten.

6. 1997. urteko ekainaren 6an, erositako 10 abelburu saneatu ziren, eta emaitza negatiboa eman zuten.

7. 1997. urteko urriaren 22an, erositako 4 behi saneatu ziren, eta emaitza negatiboa eman zuten.

8. 1997. urteko abenduaren 2an Leoneko 7 buruak berriro saneatu ziren, eta horietariko 2k emaitza positiboa eman zuten bruzelosiari buruzko analisietan eta 7k emaitza positiboa IBRari buruzkoetan.

9. 1998. urteko urtarrilaren 7an 100 buru saneatu ziren, eta 5ek emaitza positiboa eman zuten.

10. 1998. urteko urtarrilaren 23an 122 buru saneatu ziren, eta 12k emaitza positiboa eman zuten.

11. 1998. urteko otsailaren 13an 106 buru saneatu ziren, eta 3k emaitza positiboa eman zuten.

12. 1998. urteko martxoaren 2an 101 buru saneatu ziren, eta 2k emaitza positiboa eman zuten.

13. 1998. urteko martxoaren 12an buru 1 saneatu zen, eta emaitza positiboa eman zuten.

14. 1998. urteko martxoaren 24an 99 buru saneatu ziren, eta 5ek emaitza positiboa eman zuten.

15. 1998. urteko apirilaren 20an buru 1 saneatu zen, eta emaitza negatiboa eman zuten.

16. 1998. urteko apirilaren 21ean 94 buru saneatu ziren, eta 7k emaitza positiboa eman zuten.

17. 1998. urteko maiatzaren 26an 62 buru saneatu ziren, eta 9k emaitza positiboa eman zuten.

18. 1998. urteko ekainaren 8an 12 buru saneatu ziren, eta 8k emaitza positiboa eman zuten.

19. 1998. urteko ekainaren 29an 69 buru saneatu ziren, eta 14k emaitza positiboa eman zuten.

20. 1998. urteko uztailaren 16an 56 buru saneatu ziren, eta 7k emaitza positiboa eman zuten.

21. 1998. urteko abuztuaren 3an 48 buru saneatu ziren, eta 11k emaitza positiboa eman zuten bruzelosiari buruzko analisietan.

Egoera ikusirik, jakinarazpenaren egunetik hasi eta 30 eguneko epearen barruan ugalketarako animalia guztiak hiltzeko jarraibideak eman zitzaizkion abuztuaren 7an Beltza jaunari, animalien gaixotasunak eteteko programa nazionalak erregulatu dituen abenduaren 20ko 2611/1996 Errege Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Ustiatégian egin diren kontrol sanitarioen emaitzen arabera, ezin da berretsi ustiatégian bruzelosia egon zenik 1997. urteko apirilaren 22ko kontrola eta abenduaren 2ko kontrola egin bitartean.

Gaixotasuna azaldu zen unetik aurrera Beltza jaunari bidezko ziren jarraibideak eman zitzaizkion animalien maneiatzeari eta desinfekzio neurriak nahiz neurri profilaktikoak hartzeari buruz, bai eta ganadua ustiatégitik kanpo mugitzeko debekuari buruz ere, hiltegiara eramateko mugimenduak salbuetsiz.

Beltza jaunarena bezalako ustiatégian bat, hazteko azienda eta haragitarakoa duena, mistoa beraz, beti arriskutsua da osasunaren ikuspuntutik, animalien mugimendu handiagoa daukalako, eta haragitarako animaliak saneamendu kanpainenetan barne hartzen ez direlako. Horregatik, departamentuak mota honetako ganadua ustiatégia ez du gomendatzen.

Azpimarratu beharra dago Leoneko tratulari bati 11 behiren erosketagatik ustiatégian sartu zen bruzelosi-fokua, hark, bere aldetik, behiak 6 abeltzain desberdineri erosi baitzizkien, eta Nafarroa ekarri aurretik behiak tratulariaren ustiatégian kokatuta egon baitziren. Animalia horiek Leonetik otsailaren 22an atera ziren eta Beltza jaunaren ustiatégian otsailaren 28an odola atera zitzaion, hau da, sei egun geroago. Lehendik adierazi den bezala, horietariko hiruk bruzelosia zuten, eta horren berri Gaztela-Leoneko Animalien Osasunaren zerbitzulariari eman zitzaion, eta animalien hilketagatiko kalte-ordainketa autonomia erkidego horren kontura joan zen. Funtzionario horri, era berean, adierazi zitzaion hildako animalietako baten krotala manipulatu eta egon zitekeela, segurtasun-errematxerik ez baitzeukan.

Animaliak jatorri eta osasun gidarekin eta osasun ziurtagiriek eta etorri baziren ere, ustiatégian animaliak sartzeko modu hau osasun arriskuko jarduketara dela esan daiteke.

Hala eta guztiz ere, adierazitako guztiak gaixotasunaren jatorria Leoneko ganaduaren erosketa izan dela adierazten badu ere, hau ezin da erabat frogatu ikuspegi teknikitik.

Haragitarako ganaduari dagokionez, Beltza jaunari berau beste nabe batera lekualdatzeko baimena eman zaio (nabe horrek departamentu honetako teknikari al baitarien oniritzia jaso behar du), ustiategiko ganadua gordetzeko toki guztien desinfekzio sakona ahalbidetzeko, kontuan izanik ustiategiak hutsik egon beharko duela gutxienez ere bi hilabeteko epean.

Aurreko informazioaren osagarri gisa, jarraian 1997 eta 1998ko bruzelosiarekiko positibotasunaren oinarriko datuak barne hartzen dira.

a) Behien bruzelosia (Beltza jaunaren ustiategia kontuan hartu gabe).

1997. urtean gaixotasun hau 10 ustiategitan agertu zen Martzilla, Biotzari, Luzaide, Gartzain, Irurita, Legasa eta Cortesko udalerrietan. Guztira 208 animalia izan ziren bruzelosiari buruzko analisietan positibo eman zutenak.

1998. urtean (irailera arte) gaixotasun hau 17 ustiategitan agertu da Azpirotz, Leitza, Etsain, Uztegi, Elkoatz, Satrustegi, Lakabe, Arguedas, Gartzain, Elbete, Irurita, Azpilikueta, Legasa eta Cortesko udalerrietan. Guztira 116 animalia izan ziren bruzelosiari buruzko analisietan positibo eman zutenak.

b) Ardien eta ahuntzen bruzelosia (B. melliten-sis).

1997. urtean, 73 ahuntzek eta 2.357 ardik positibo eman zuten, 228 ustiategitan.

1998. urtean, 41 ahuntzek eta 1.565 ardik positibo eman zuten, 164 ustiategitan.

Ardien eta ahuntzen bruzelosia gizakiari transmititzeko errazagoa da behien bruzelosia baino.

2.- Nafarroako Gobernuak uste al du beharrezko neurriak hartu direla arazoa konpontzeko, denbora askotxo igaro baita antzeman zitzaionetik?

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak animalien gaixotasunak eteteko beti hartzen diren neurriak hartu ditu. Gaixotasun horiek gaiari buruzko Europako Batasunaren araudia jasotzen duen abenduaren 20ko 2611/1996 Errege Dekretuan zerrendatuta agertzen dira.

Lehen adierazi den bezala, ezohiko neurri bat ere hartu da, hau da, ustiategiaren hustuketa sanitarioa deiturikoa.

Bruzelosia gaixotasun maltzurra da, eta zebaitetan (kasu honetan bezala) berau etetea oso zaila da, Beltza jaunarena bezalako ustiapen sistemek (mistoa gizenegiarekin) erraztu egiten baitute.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 15ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 6.000.000 pezetako “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardueren bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren araberako hitzartutako zenbatekoa.

Bere hartan mantenduko da elkarteei orain arte eman zaien laguntza; kasu batzuetan, gainera, finkatu eginen dira jarduerak, eta beste batzuetan elkarteak erakusten duen hazteko asmoa bultzatuko da, batez ere lanbide zentroen arloan eta diru baliabide urriko ezinduen atsedean eta kultur sustapenera bideratzen diren jardueren arloan.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari-gerenteak maiatzaren 29an emandako 1617/98 Ebazpenaren bidez, Iruñeko Abokatuen Elkargoak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak egindako lankidetzak hitzarmena onetsi zen, Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzua abian jartzeko.

Lankidetzak hitzarmen horren bidez Iruñeko kartzelan dauden presoek eskaini nahi zaie zerbitzu hori, eta horrekin presoek informazio, zigorren betearazpen, ofizial txanda eta beren eskubideei buruzko informazioa izateko aukera ukanen dute.

Zerbitzuak arreta pertsonala emanen du aste guztian, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko bostetatik zazpitarera, zerbitzua berriaz erabiltzeko Iruñeko kartzelak berak bereziki horretarako egokituko duen mintzategian.

Aipatu mintzategia funtzionamendurako behar duen material guztiarekin hornituko da, eta hornituko hori onartutako kontusailaren kargura joanen da. Abokatuen Elkargoak jarriko ditu laguntza juridikoaren arloan presoek arreta egokia emateko behar diren abokatuak.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari-gerenteak maiatzaren 29an emandako 1617/98 Ebazpenak 3.500.000 pezetako gastua onetsi du aipatu aurrekontu-lerroaren kargura, lankidetzak hitzarmenean aurreikusitako jarduerak garatzeko.

Administrazio honekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, zerbitzua ez da oraindik abian jarri: Abokatuen Elkargoak Espetxeen Zuzendaritza Nagusiak igorri behar dion baimenaren zain dago, Abokatuen Elkargoak eta Espetxeen Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu hori abian jartzeko jada sinatua duten aipatu akordioa abian jartzeko. Hala ere, espero da, Iruñeko kartzelatik eta Abokatuen Elkargotik jasotako informazioaren arabera, oso denbora gutxi barru jasoko dela administrazioaren baimena.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentario andreak etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera

egin du etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer dirulaguntza ematen ditu Nafarroako Gobernuak etorkinak bertakotzeko?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren apirilaren 2ko 134/92 Foru Aginduaren bidez onetsitako gizarte zerbitzuen arloko jarduerak funtzionatzeko eta sustatzeko dirulaguntzen deialdietan oinarriturik eta eskaerak ondoko irizpideen arabera baloraturik:

* Aurkeztutako programa eta/edo proiektuak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak etorkinen arloan dauzkan helburu nagusiekin bat etortzea, hau da:

– Etorकिन bertakotzea eta gizarteratzea sustatzeko jarduera bereziak.

– Ukitutakoak lan mundura eta gizartera bideratzeko laguntza pertsonala eta familiarra.

– Kolektibo honentzat aukerak bilatzeko sensibilizazioa, ezagutaraztea eta partehartzea bul-tzatzea.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Osasun Zentroek eta beste erakunde batzuek garatzen dituzten beste programa batzuen osagarri izatea eta horiekin koordinaturik garatzea.

- Komunitate osoaren partaidetza sustatzea.

- Erakunde eskatzailearen edota bere arloko beste erakunde batzuen kofinantzazioa egotea.

- Baloratzea bai onuradunen kopurua bai programaren xedeko gizarte atalaren beharrianak.

- Proposatutako helburuak beteko direla bermatzeko azpiegitura egokiak edukitzea.

- Aurreko urteetan garatutako proiektu edo jardueren emaitza positiboak: horien bilakaera eta ebaluazio positiboa.

- Europako Gizarte Fondoetan parte hartzea.

- Borondatezko laguntzaileak egotea eta horiek sustatzea.

- Baliabideak (administratiboak, teknikoak, funtzionamenduari buruzko prestakuntzakoak eta abar) gizarte xedeko beste erakunde batzuekin banakidetasunez erabiltzea.

Elkarte eta erakunde eskatzaileei 1998ko ekitaldian 24.558.214 pezeta banatu zaizkie dirulaguntzetan.

2. Zeri ematen zaizkio dirulaguntzak?

– Langileak:	5 gizarte langile administrari 1 lege aholkularitza:	17.250.000 pezeta.
– Gastu orokorrak:	alokairua, mentenimendua, argia, ura, telefonoa, bulegoko gastuak eta abar:	3.731.000 pezeta.
– Jarduerak:	kulturarteko prestakuntza, heziketia eta abar:	3.577.214 pezeta.

3. Zein kontusailen kargura?

1998ko aurrekontuko “Etorकिनak gizarteratzeko laguntza programa” izeneko 93300-4810-3131 kontusailaren kargura (33640-1 lerroa). Kontusail horrek 25.000.000 pezetako zuzkidura du.

4. Zein elkartek jasotzen dituzte?

ANAFE:	17.631.000 pezeta	(Iruñean eta Tuteran du egoitza)
SOS ARRAZAKERIA:	4.712.214 pezeta	(egoitza Iruñean)
U.G.T.:	2.215.000 pezeta	(sindikatuak Nafarroan dituen 7 delegazioetan egoitzak)
GUZTIRA:	24.558.214 pezeta	

5. Zer jarduketa egiten dituzte elkarte horiek?

Ondoko arloetan burutzen dira jarduerak:

ARTATZE ARLOA

Etorकिन arazoetan eskuhartze integrala, eta horretan etorकिन kolektiboa, populazio hartzailea eta bai instituzio publikoak bai gizarte ekimenekoa denak batera inplikatuz. Horretarako, zenbait jarduera burutzen dira inplikatuta dauden sektoreekin.

Etorकिनak

Ondokoak dira kolektibo honekin garatu beharreko eginkizunik nagusienak:

– Informazioa, aholkularitza eta eskubide zein betebeharrei buruzko prestakuntza, hots, etorकिनak eta beren sendiak Espainiako estatuan beren egoera normalizatzeko behar dutenari buruzkoa.

– Era guztietako dokumentuak tramitatzea eta kudeatzea (baimenak, pasaporteak, ezkontzak, kontsulatuko txartelak eta abar).

– Erabiltzaileei laguntza osoa ematea, beren proposamen eta/edo beharrianen arabera, honako helburuetarantz:

- Giza baliabideak (Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, auzoetako unitateak, aterpetxeak eta abar.)

- Osasun baliabideak (osasun zentroak eta abar)

- Etxebizitza (alokatu, erosi, saldu eta abar)

- Hezkuntza baliabideak (eskolaratzea, haurtzaindegiak eta abar)

- Gobernu Kanpoko Erakundeak (parte hartzea, elkarkidetzak eta abar)

– Aurreko bi ataletan zerrendatu diren jarduera guztietarako laguntza ematea.

– Gizarteratzeko aholkua eta laguntza ematea. Erreferentzia puntuak eta pertsonak bilatzea, hala nola laguntza-sareak, etorकिनak bertakotzeko sustatuz.

Populazio hartzailea

– Lan emaileak. Atzerritarrak kontratatzeko behar den informazio eta dokumentazio guztia ematea (kontratuak, lan egiteko baimenak eta abar). Langileen zerrendak ere ematea.

– Etxebizitzan jabeak. Maizterrak, kontratu motak eta abar.

– Populazioa oro har. Etorkinei buruz edozein motatako informazioa, aholkularitza eta laguntza.

Instituzio, erakunde eta entitateak

Honakoak dira jarduera garrantzitsuenak:

– Informazioa eta prestakuntza.

– Jarduerak koordinatzea.

– Kasuak bertara eramatea agiriak tramitatze-ko.

– Elkarrekin jarduerak antolatzea.

– Jarduerak baloratzea eta ebaluatzea.

SENTSIBILIZAZIO ETA INFORMAZIO ARLOA

– Elkarbizitza arazoetan bitartekaritza egitea, arazoak konpontzeko.

– Haur eta gazteak elkartasun, errespeto eta kulturaren aniztasunean hezitzea.

– Populazio hartzailea sentsibilizatu eta arrazakeriaren aurkako jokabideetan hezitzea.

– Arrazakeriazko diskriminazioak SALATZEA.

– Irakasleei baliabide metodologikoak ematea, kultura aniztetako hezkuntzan lan egiteko.

– Etorkinen kolektiboari beraiek hartu dituzten kultura maioritarioarekin komunikatzeko bideak eskaintzea.

Jarduerak

– Kultura lantegiak antolatzea.

– Gazteentzako lantegiak antolatzea.

– Sentsibilizazio jardunaldiak.

– Mahai inguruak.

– Martxak, eserialdiak eta abar antolatuz arrazakeriazko jarrerak salatzea.

– Kultura desberdinen elkarguneak sortzea eta bultzatzea.

– Kulturarteko hezkuntza aretoak, honakoen bidez:

• Diskriminazio egoerak simulatzen dituzten jokoak.

• Eztabaidaguneak eratzea.

• Jatorri etniko desberdinetako musika eta dantza lantegiak antolatzea.

• Herri desberdinen kultura, tradizio, historia eta abarri buruzko informazioa.

• Kulturaren aniztasunari, arrazakeriari eta abarri buruzko hitzaldiak.

• Erakusketa irekiak antolatzea.

PRESTAKUNTZA ARLOA

Ondoko ikastaroen programazioa:

– Gaztelania.

– Kultura orokorra.

– Lanbide heziketa.

– Teknikariak prestatzea.

Hiru erakundeek hiru arlo horietan burutzen dituzte jarduerak, etorkinak hartzen dituen populazioari dagokionean, etorkinarentzako arreta integrala eskaini nahi delako. Hala ere, horietako bakoitzak maila desberdinean lan egiten du arlo bakoitzean; hala, ANAFE-k artatze arloan burutzen ditu bere eginkizunik gehienak; SOS Arrazakeriak sentiberatze arloan, eta U.G.T.k etorkinaren laneko egoeraren arloan.

6. Emandako dirulaguntzen zer jarraipen egiten du Nafarroako Gobernuak?

Egiten den jarraipen guztiak aurreikusitako jarduerak lortu nahi diren helburuetarantz bideratu direla ziurtatzeko izaten dira, hau da, etorkinak gizarterako helburua zaintzea.

Eta horretarako honakoa izaten da kontuan:

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 1996 eta 1997ko ekitaldietan eman dituen dirulaguntzen gastua behar bezala egiaztatzea.

– Erakundeek 1997ko ekitaldirako aurkeztu dituzten txostenak.

– Burututako eta aurreikusitako proiektuei buruz Gizarteratze Bulegoko teknikariek egiten dituzten balorazioak.

– 1996 eta 1997. urteetan burutu diren jardueretan eta 1998. ekitaldirako aurreikusi direnetan parte hartu edo hartuko duten erakundeekin batera Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan 1997-11-11ko bilkuran egindako balorazioa.

– Gizarteratze Bulegoko teknikari eta buruak dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeetako profesionalekin egin dituzten bilerak, proiektu horien garapena ezagutzeko. Hala, 1998. urtean zehar honako bilerak egin dira: ANAFEREkin: 1998-04-30, 1998-05-07 eta 1998-09-09an; SOS

Arazakeriarekin: 1998-05-12an eta UGTrekin: 1998-05-18 eta 1998-06-02an.

Aurreikusita dago hile honetan SOS Arrazakeria eta UGTrekin bilerak egitea, proiektuen nondik-norakoa ikusteko.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer entitate, erakunde, enpresa edo organizaziori esleitu zitzaion esleipena? Zenbatean? Noiz izenpetu zuten kontratua? Noiz bukatzen zen entregatzeko epea eta noiz eman zuten azterlan-inbentarioa?

Urriaren 28ko 1200/96 Ebazpenaren bitartez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak bideratutako Nafarroako turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioaren kontrataziorako espediente onetsi zen, lehiaketa sistemaren bidez.

1996ko azaroaren 28an, helbidea Iruñean, Kontseilu Plazako 3 eta 4 zenbakietan duen Tenada SL enpresari esleitu zitzaion aipatutako lana, 2.691.000 pezetatan, eta ondoren Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza

Nagusiak emandako abenduaren 9ko 1362/96 zk. Ebazpenaren bitartez berretsi egin zen.

Kontratua abenduaren 16an formalizatu zen, eta bertan exekuzio-epea abenduaren 27ra bitartekoa zela adierazten zen.

1997ko urtarrilean entregatu zen azterlan hori, Nafarroako Gobernuaren Departamentuarteko Batzordeak turismo kanpamentuetan dauden arrisku posibleen egoerari buruzko lehen estimazio bat egiteko erreferentzia gisa erabili zen hasierako dokumentua izan zen, baina bere esparrua Nafarroako Gobernuaren Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak baliozkotutako instalazioetara (19 unitate) murriztu zen.

Geroago, Departamentuarteko Batzordeak berak, era berean, lehen azterlan hori Foru Administrazioaren aurrean tramitatutako edo tramitatzeko ari diren eta etorkizunean funtzionamenduan egon daitezkeen gainontzeko turismoko instalazioak (8 unitate) barne hartzen dituen beste azterlan osagarri batekin zabaldu beharra aztertu zuen.

Lehen aipatu den enpresa berari presazko lehiaketa murriztuaren bidez esleitu zitzaion bigarren azterlan hori burutzeko diru esleipena uztailaren 3ko 828/97 Ebazpenaren bidez onetsi zen, 1.290.000 pezetako zenbatekoarekin, eta zenbateko hori beste 408.067 pezetarekin zabaldu zen Goizuetan kokatuta zeuden instalazioetan egindako azterketan oinarrituz.

Beraz, 1996ko abendutik 1997ko uztailera arte egindako azterlanaren hiru faseak osorik bilduz, 4.389.067 pezeta ordaindu da guztira Departamentuko aurrekontuaren kargura, guztira 28 turismo kanpamentu aztertzearen ondorioz.

2.- Zeintzuk dira esleitutako azterlan-inbentarioaren ondorioak? Egoera hobe dezaketean jarduru

keta praktikorik ateratzen al da horretatik? Zeintzuk?

Azterlanaren ondorioei dagokienez, adierazi behar da hau abiapuntu gisa baliagarria izan dela instalazio horiek izan ditzaketen arriskuen aurrean lehen diagnostiko orokor bat formulatzeko, ondoren azterlan xehekatuagoak egiteko (azterlan hidrológicoak eta abar), haien ondorioen aurrean prebentzio gisa baliagarriak izan daitezkeen aitzin-neurriak proposatzeko (autobabeserako eskuliburu indibidualizatuak eta abar), eta mota honetako instalazioen edo antzekoen (gazte kanpalekuak eta abar) ezarpena erregulatzeko baliagarriak izango diren arau proposamenak egiteko .

3.- Zer harreman du azterlan-inbentario honek Ingurugiro Zuzendari Nagusiak emandako 1810/1997 ebazpenaren bidez onetsi zen lehiaketaren ondorioz esleitu zen Nafarroako kanpatze-

instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanarekin?

Aurreko puntuan adierazi bezala, instalazio horiek aztertzeko sortu zen Departamentuarterko Batzordeak azterlan xehekatuagoak egitea proposatu zuen, eta horien artean daude Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren 1810/97 Ebazpenaren bidez onetsitako Azterlan Hidrológico eta Hidraulikoak.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eginga al zuen, 1810/1997 ebazpenaren data baino lehen, arrisku horien inguruko bestelako azterlanik? Baiezkoan: ezarri al zuen azterlanak lehen diagnostikorik kan-

patzeko instalazioek uholde-arriskuen aurrean zuten egoeraz? Zein zen diagnostiko hori?

Biescaseko kanpinean izan ziren gertakarien ondorioz, Nafarroako Gobernuak, 1996ko irailaren 9ko Gobernu Erabakiaren bitartez, kanpatzeko zonetako arriskuen inguruko azterlana burutzea eta honi loturik neurri egokiak hartzea erabaki zuen.

Azterlan hori garatzeko Departamentuarterko batzorde bat sortu zen, ondoren adierazten diren departamentuetako ordezkariekin: Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lana; Ingurugiroa, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza; Lehendakariak; Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua; eta Herrilan, Garraio eta Komunikazioak. Batzordearen koordinazioa Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak egiten du.

Arriskuen inguruko azterlanaren lehen fase batean, 1996. urtean, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak “Nafarroako turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioa” enkargatu zuen.

Geroago, lehen azterlan hori burutzen ari ziren gainontzeko instalazioen azterlan osagarri batekin zabaldu beharra ikusi zen.

TENADA, SL enpresa izan zen azterlan horien adjudikazioaren hartzailea, eta azterlanak 1996ko abendutik 1997ko uztailean arteko epean egin ziren.

Bere ondorioen artean, inbentarioan sartutako kanpin batzuen uholde arriskua adierazten zen. Atariko azterlana zenez, arriskuen balorazioa ertaina, altua edo baxua sailkatzea mugatzen zen.

Ondorioak ikusita, uholde arriskuari dagokionez planteatu zen ezen batzordekide ziren Herrilan eta Ingurugiro Departamentuetako teknikariek arrisku ertain edo handiko sailkapena zeukaten instalazioak bisita zitzatela eta uholde arriskua sakontasun handiagoz aztertze baldintza-plegu bat egin zezatela eta gertatzeko probabilitatearen arabera gainezkatze-kurbak definitu. Hautatu ziren kanpalekueetatik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eskatu zitzaizen azterlan berriak egiteko, eta hauek "Nafarroako kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlana" izenburupean bildu ziren.

Era koordinatuan eta zein bere aldetik burutu ziren azterlan horien adjudikazio hartzailea INYPSA enpresa izan zenez, bi azterlanetako zuzendariak txostenaren testua bateratuta idaztea erabaki zuten, departamentu bateko nahiz besteko kanpalekuak barne hartuz. Txostenaren eranskinekin eta mapekin ez zen gauza bera egin, eta bakoitzak bere azterlaneko kanpalekuak lantzen ditu.

Azterlanaren helburu zehatzak ondorengo hauek izan dira:

a) Instalazio bakoitzarentzat uholde-hidrograma eta gainezkatze-kurbak definitzea, gertatzeko probabilitatearen arabera.

b) Uholdeen izaera ezartzea, kasu bakoitzean, kalteak sortzeko duten potentzialaren arabera. Kasu bakoitzerako honako alderdi hauek aztertu dira: uholde-emia, itzulera-aldia, ukitutako azalera, uholde bakoitzarentzat ur-lamina iristen deneko kota, uraren abiadura gainezka egin duen alderdian, arroaren erantzun-denbora, arrastatzeko posibilitatea eta abar.

c) Gainezka egin duten alderdietan neurri zuzentzaileak hartzeko (lurrezko hormak eraikitzea, egiturak erauztea eta abar) eta erabilera mugatzeko proposamena.

Helburu hauek betetzeko, lana ondoren adierazten den eran egituratu da:

– Azterlan hidrologikoa, kanpalekueetako inguruetan arroetako uholde-emiak definitzearen. Gehienezko emiak gertatzeko probabilitatearen arabera definitzen dira.

– Azterlan hidraulikoa, lehendik lortutako emariak kanpaleku bakoitzean sortutako gainezkatze-zona lortzearen, gainezka egin duen alderdian uraren sakonera eta abiadura kontuan hartuz. Emariak gertatzeko probabilitatearekin erlazionatuta daudenez, gainezkatze-lineak probabilitate horren arabera identifikatuta daude.

– Soluzio estrukturalen eraginaren azterlana, gainezkatze-arriskuaren murriztapenean jarduketa puntual batzuen eragina aztertzearen. Aztertu diren jarduketak, arrotik bere hustuketarako ahalmena murrizten duten oztopoak ezabatzean dauzta batez ere, bai eta hormen eraikuntzan ere.

– Azterlan geomorfologikoa, uholdeekin zeharka erlazionatuta dauden bestelako arriskuak identifikatzearren, hala nola: mendi-hegalen mugimendua edo bloke-erorketa.

2.- Zer entitate, erakunde, enpresa edo organizatori esleitu zitzaion esleipena? Zenbatean? Noiz izenpetu zuten kontratua? Noiz bukatzen zen entregatzeko epea eta noiz eman zuten azterlana?

Lehenago adierazi den bezala, Ingurugiro zuzendari nagusiaren 1810/1997 Ebazpenaren bitartez onetsitako lehiaketaren adjudikazioaren hartzailea Informes y Proyectos, S.A. enpresa (INYPSA) izan zen, 6.803.354 pezetako zenbatekoarekin eta 5 hilabeteko adjudikazio-epearekin.

Kontratua 1997ko irailaren 5ean izenpetu zen, eta entregatzeko epea 1998ko otsailaren 5ean amaitu zen.

Azterlana 1997ko abenduan entregatu zen behin-behinekoz, eta berau berrikusi ondoren, 1998ko otsailean behin-betikoz.

3.- Zeintzuk dira 1810/1997 ebazpenak aurreikusi lehiaketaren bidez esleitutako azterlanaren ondorioak? Egoera hobe dezaketen jarduketa praktikorik ateratzen al da horretatik? Zeintzuk?

Uholde arriskuen inguruko azterlanak parametro desberdinak eskaintzen ditu uholde posible baten arriskua ebaluatzeke, eta arrisku hau larria edo ez hain larria izango da honako alderdi hauen arabera: gainezkatze-zona, bere jarduera, abiadura, sakonera, emaria, puntako garaia, egon daitezkeen arrasteak eta gertatzeko probabilitatea. (CEDEXen Azterlan Hidrografikoetarako Zentroa, 1991).

Azterlan honen ondorioak jarraian adierazten diren hauek dira: araudia hobetzeko mailan batzuk, eta kanpin bakoitzean jarduketa praktikoa indibidualizatuen mailan besteak, hala nola: neurri-kostu handiago edo txikiagoko hormen eraikuntza, kanpatzeko arearen beraren erabilgarritasuna

edo gabezia, eta gainezka egin dezaketean alderdietan jarduera-erabilera aldatzea.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Etxebizitza planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruaren kudeaketarako sozietate berriak bereganatu beharko dituen eginkizunak zehazteko?

Eginkizun hauek definitzeko bilerak egin dira, hala barne-bilerak nola etxebizitzaren eraikuntza eta sustapenaren sektorearekin erlazionatuta dauden agente desberdinekin egindakoak, eta hauetan ere kudekatea-sozietate moduen aukera desberdinak aztertu dira.

2.- Idazketaren zer fasetan dago aipatu sozietatearen nortasunaren inguruko aukerei buruzko azterketa teknikoa (% 100 publikoa, publikoa gehienbat, % 51... e.a.)?

Azterketa teknikoen burutzapena oso aurreratu dago.

3.- Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak aipatu sozietatea jardunean hasiko dela?

Etxebizitza planak sozietate bati lurzoruaren kudeaketari loturik esleitzen dizkion eginkizunak denbora gutxi barru jarriko dira martxan, departamentuaren azterketa teknikoarekin bat etorrituz.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, laguntzak eman aurretiko kontrola hobetzeko, eskatzaileak aurretik etxebizitzarik ba ote duen edo, hala bada, bestelako etxebizitzarik erabiltzen duen igartzearren?

Etxebizitza erosteko kontratu bakoitza onesteko aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak burutzen duen jarduketa sistematikoa eskuratzailerek edo beren ezkontideek beren jabetzako etxebizitzaren bat ote duten egiaztatzean datza, eskura dagoen katastroaren informatika-basean kontsulta eginez. Horrelakorik aurkitzen denean, iruzurrezko jarduera egiaztatzeko xedez beste zenbait ikerketa osagarri egin ondoren, bidezkoa den moduan jarduten da, oniritzia ukatuz eta/edo laguntzak ukatuz, kasuak kasu.

Alogerako etxebizitzak direnean, maizterrak hautatzeko prozesuetan etxebizitzarik ez edukitzea bereziki kontuan hartzen da.

2.- Nafarroako Gobernuak egin al du edo gartzeko asmoa du kanpainaren bat iruzurrari antzemateko, zerga-dirusarrerei buruzko informazioa edo legez eskura daitekeen beste edozein erabiliz (etxebizitzak erabiltzen egiten den ohiko gastua)?

Gobernuak iruzurrari antzemateko jarduketa sistematikoa burutzen du, maileguen subsidiazioen berrikuntza espedienteak (3.000 inguru, urte-

ko) aztertzeko unean gauzatzen dena. Xede horrekin, etxebizitza ohiko bizileku iraunkorrera destinatzen ez deneko susmoa azaltzen duten kasuetan, eta onuradunen erroldatzea eta beren etxebizitzetako ur eta elektrizitate kontsumoak aztertzen dira.

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, dirusarrerak ezkutatzea galerazteko, diruz lagundutako etxebizitzak erosteko laguntzak eskuratzeko garaian?

Etxebizitza eskuratu eta gozatzeko dirulaguntzak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako aitortenean agertzen diren dirusarrerek ezartzen dituzte, eta dokumentu hau, bere seriotasuna eta kontrola dela-eta, egokientzat jotzen da ondorio hauetarako. Epez kanpoko aitorten osagarriak ez dira onartzen dirulaguntzak kalkulatzeko. Dirusarreraren ezkutatzea Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren bitartez esesten da.

4.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, gainprezioak jasotzea esesteko, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketetan eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak erabiliz?

Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubidearen erabilpenak berak kentzen du neurri handi batean gainprezioak jasotzeko asmoa. 1998. urtean, eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketetan gainprezioak jasotzen ez direla adierazten duten aztarnak egon badaude (baina ezin da kasu isolatu eta ezohikoren bat baztertu).

1998. urteko aurrekonturako, Nafarroako Gobernuak bere foru lege proiektuan % 25eko igoera proposatu zuen eroslehentasun eta atzera-eskuratze zerga destinatuta zegoen kontusailean.

Gobernuak eroslehentasun eskubidea erabiltzea erabakitzen duen kasuen berri komunikabideetan ematen da, hauen hedapen publikoak iruzur egiteko asmoa kentzeko xedez.

Etxebizitza hauen bigarren eskualdaketako salmentari dagokionez, deskalifikazio prozesuak prezioa mugatetik alde batera uzten ditu.

5.- Nafarroako Gobernuak aztertu al du edo aztertzeko asmorik al du penalizazio-sistemaren bat erabiltzea, araupetutako etxebizitzaren salmentan gainprezioak jasotzen dituzten sustatzaileei

ezartzeko? Baiezkoan: zer euskarri juridiko erabili da horretarako? Noizko aurreikusi da martxan jar-tzea?

Gainprezioak jasotzen diren kasuetarako penalizazio-sistema bat ezarrita dago; arau-hauste hau "oso larria" bezala tipifikatuta dago eta behar bezala zigortzen da. Horretarako euskarri juridikoa dagoeneko badago, babes ofizialeko etxebizitzaren politikari buruzko urriaren 31ko 31/1978 Errege Dekretu Legearen 8. artikulutik eratorritzen dena, azaroaren 10eko 3148/1978 Errege Dekretuaren 56 eta 57. artikuluekin eta 11. xedapen iragankorrekarekin eta uztailaren 24ko 2144/1968 Dekretuaren bidez onetsitako babes

ofizialeko etxebizitzaren Erregelamenduaren 153 eta 154. artikuluekin bat etorrituz.

Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren alorreko zigor-erregimenaren tramitazioa bidezko den erregelamenduaren idazkuntzaren bitartez erregulatzeari aurreikusita du, eta xede horrekin lan-dokumentu desberdinak landuta daude.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak hobaridun mailegu kualifikatuak hobetzeko?

Egin diren jarduketan artean, hauek dira nabarmenenak:

– 1997az geroztik hitzarturiko mailegu koalifikatuentzako urteroko amortizazioak konstanteak izatera pasatu dira, jarrera hori bat baitator gaur egungo inflazioaren beherakada-aldiarekin.

– Interes-tasa automatikoki berraztertze denbora urtebetera jaitsi da (lehen, 3 eta 5 urtekoa zen); hori dela eta, mailegu hauek merkatuaren ohiko jardunbidetik hurbilago daude, eta gainera, mailegu hipotekarioek izandako interes-tasen eboluziora ere hobeto egokitzen dira.

– Hitzarturiko hasierako interes-tasa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena baino hobea da, han ere eskumenak baitituzte gai honetan, Nafarroan bezalaxe; eta areago, Espainia osoan ere ez du parerik; batez ere, maileguaren lehen urtean. Esaterako, Nafarroan dugun interes-tasa puntu bat gora dago estatuan dutenaren azpitik.

– Halaber finantza-entitateekin halako hitzarmen batera iristea lortu da, honako emaitzarekin: urte osorako balio izatez gain, urte hasiera bakoitzean hilabete luzeak itxaron-beharrik ere ez dago (lehengo ohituraren arabera ezinezkoa baitzen garai horretan mailegurik formalizatzea).

2.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) sustatzen dituztenentzako dirulaguntzak hobetzeko?

Araubide bereziko alokairu-etxebizitzak sustatzen dituztenei ematen zaien dirulaguntza handia (salmentaren prezio teorikoaren % 25) bere horretan utzi du Gobernuak; eta dirulaguntza jasotzeko baldintzak ere aldatu egin ditu. Esaterako, behin-behineko kalifikazioaren ondoren, promotoreak

dirulaguntzaren % 50 jaso dezake (lehen, % 33 baino ez). Beraz, bere likidezia hobetzeko aukera ematen zaio promozio hasieran, garai horretan sortzen baitzaizkio gasturik handienak (lurra, urbanizazioa eta proiektua).

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide bereziko etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak hobetzeko, haien gorabehera ekonomiko eta familiararen arabera, hasierako aldiko ordainketa erraztearen eta berankeria-arriskua gutxitzearen?

Araubide bereziko etxebizitzaren errentariari ematen zaion dirulaguntza benetan garrantzi handikoa da: errentaren % 75 izatera iristen da, baldin-eta ponderaturiko famili diru-sarrerak S.M.I. delakoa 1etik gora gainditzen ez badute (esaterako, 4 pertsonaz osaturiko familia baten ezarpen-oinarriaren arabera diru-sarrerak urtean 1.300.000 pezetakoak balira, eta Iruñean araubide bereziko 85 m²ko babes ofizialeko etxebizitza batean errentari gisa balego, hileroko 38.609 pezetako errenta ordaindu beharko luke, baina Nafarroako Gobernuak kopuru horretatik 23.957 pezetako dirulaguntza emanen lioke; beraz, errentariak 9.652 pezetako baino ez lituzke ordaindu beharko. S.M.I. delakoa 1etik 1,4 aldira bitartean ponderatzen duten famili diru-sarreentzako laguntza % 50ekoa izanen zen; eta S.M.I. delakoa 1etik 1,5 aldira bitartean ponderatzen duten diru-sarrerena, % 25.

4.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak alokairuaren malgutasun handiagoa eta txandaketa ona erdiestearren, etxebizitza berean egoteko urte kopurua erregulatuz?

Ekimenik esanguratsuneak ondoko hauek dira:

– Etxebizitzako aurrezte-kontuak bultzatzea. Horretarako, errentariei dirulaguntzak eskaintzen zaizkie, alokairu-etxebizitza utzi eta babes ofizialeko etxebizitza erosi ahal izan dezaten.

– “Errentari Gaztea” izeneko modalitatea abian jartzea, hala baitago arauturik azaroko 17ko 338/1997 Foru Dekretuan. Horren arabera, errentariak alokairuko etxebizitza utzi behar luke bost urte pasatutakoan, beste errentari bati etxea alokatzeko txanda pasatzeko. Irailean onetsiko bide den foru dekretu berriak txanda-sistema bultzatuko du, honela: hasierako dirulaguntza konpentsatzailearen truke, promotore publikoei egiten zaien errenta jaitsi egiten zaie. Jaiste horri esker, errentariei errazagoa egiten zaie errenta ordaintzea eta aldi berean etxebizitzako aurrezte-kontua irekitzea. Izan ere, helburu nagusia errentaria etxearen jabe izatera bultzatzea da, alokairuko etxebizitza libre utz dezan.

5.- Lur-lehiaketaren batean aldatu al dira inoiz indarrean dauden balorazioak, Etxebizitza Planak alokairuko etxebizitzetarako aurreikusituen helburuak erdiestearren?

Bai. Lur publikoa esleitzeko azken lehiaketan, 1997an alegia, Iruñean alokairuko etxebizitza-kopuru nahikoa egonen zela ziurtatzeko, gorde egin ziren, lehen aldiz, bi lurzoru helburu horretarako. Gaur egun, babes ofizialeko 112 etxebizitza eraikitzen hasi dira bertan (araubide bereziko eta errentan hartzeko etxeak dira).

Hurrengo lurzoru-lehiaketan alokairuko etxebizitzaren erreserba faltarik ez dela izanen ziurtatzeko, hain zuzen, hitzartu egin zen Berriozarko Udalarekin Nafarroako Gobernuak bertako lurzoru bat eskuratzea, lurzoru publikoa adjudikatzeko hurrengo lehiaketan alokairuetarako lagatzearen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak indarreko arauak biltzeko (foru, estatu eta Europa mailan), eraikuntzari, etxebizitzari, erabiltzaileen harreman eta eskubideei eta sustapenari buruz?

Nafarroako Gobernuak galderan azaldutako lanari ekin dio, eta foru eta estatu mailako arauak (eraikuntzari eta etxebizitzari buruzkoak) biltzen amaitu du.

Gainera, etxebizitza arloari buruzko foru eta estatu mailako araubideak jasotzen dituen argitalpena ere prest dago (araubide teknikoak, finantzaketa eta sustapen-lana).

1998ko irailean, etxebizitzak sustatzeko foru dekretu bat onetsiko da; bertan, modu bateratuan, etxebizitzak babesteko hainbat jarduketei dagozkien gaiak jorratuko dira, besteak beste: finantzaketa-arauak, dirulaguntzak, maileguak, prezioak eta araubideak.

Autonomia erdidegoetako eta Europako etxebizitza-erabiltzaileen eskubide eta betebeharreri buruzko araubideak biltzeko lanak aurrera darrai; 1999rako amaiturik egotea espero da.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak egungo arauak aldatu eta hobekuntzak sartzeko diseinuan eta bizigarritasunean, izapidetzan, oztopo fisiko eta zentzumenezkoe-

tan, erabiltzaileen babesean eta eraikuntzaren kalitatean?

Diseinu-gaiak arautzen dituen araubideari buruzko barne-dokumentua prestatu da. Horra ukitzen dituen arloak: etxebizitza libreen bizigarritasun-baldintzak, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko ordenantzak, tasaturiko prezioa eta etxebizitzaren zaharberritze-lanak. Araubide horretan oso kontuan hartzen dira beste araubide batzuetan jasotako baldintzak, bereziki oztopo fisikoak deusezteari eta kalitateari buruzkoak.

Dokumentu hori eraikuntza-sektoreko agenteekin eztabaidatu behar da; hortik, bere garaian, behar diren oharrak izanen dituen beste dokumentu bat lantzeko.

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak ezar daitezkeen arauen kopurua murriztu eta prozedurak arintzeko, argitasun handiagoa eginez?

1997ko ekainean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsi zuen, etxebizitzak finantzatzeari buruzko hainbat dekretu eta haien aldaketak birbiltzen zituena. Irail honetan ildo beretik joko da, hau da, aipaturiko foru dekretua beste batzuekin batera batu egingo da; 1997 eta 1998an etxebizitza-arloko jarduketan gainean eragina izandako dekretuak dira beste horiek, esaterako: maileguak, gazte-alokairua, birgaitze-planek babesturiko pertsonentzako etxebizitzak, etxebizitzak zaharberritzea, eta etxebizitzak finantzatu, sustatu eta babesteko sistemak hobetzea.

Bestalde, aurreko galderari emandako erantzunean azaldu den dokumentuak arau teknikoak ahal den gehiena bateratzea du helburu, batez ere etxebizitza libre eta babestuei, tasaturiko prezioari eta etxebizitzak zaharberritzeari dagokionez.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak arauak ezagutarazteko etxebizitzak sustatzen zerikusia dutenen artean?

Etxebizitzak sustatzen dituzten agenteei ezagutarazi zaie araubide berria, eta batez ere, lehen galderari erantzutean azalduko bilketa-lanen berri eman zaie. Araubidea aldatzeari dagokionez, bigarren galderan bertan egin da horren aipamena.

1998ko irailean, Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren dirulaguntzari buruzko foru dekretu bat onesteko asmoa du, ukitutako agenteei horren berri eman eta eztabaidagai jarri ondotik.

5.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, gertatu diren gizarte-aldaketekin bat datozen arkitektura-irtenbide berriak bereganatzeko gai diren arau batzuk egiteko, saiobidezko etxebizitzaren prototipoak egitea, kasu?

Neurri handi batean, arkitekturaren kontzepzio bioklimatiko berriek arkitektura-konponbide berriztailak ekar ditzaketela uste dugunez, ildo horretatik ari gara lantzen aipaturiko konponbide berriz-

tailak (lantzen ari den eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztekoa den Etxebizitza Bioklimatikoei buruzko Planarekin bat eginik egiten ari da lan hori guztia). Plan horri buruzko gogoetak erabakigarriak izanen dira, hala biharko jarduketaren nondik-norakoa finkatzeko nola alor horretatik letozkeen arkitektura-konponbide berriei heltzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Indarrean dagoen etxebizitzaren ondarearen eraginkortasun sozialari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak indarrean dagoen etxebizitzaren ondarearen eraginkortasun sozialari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du indarrean dagoen etxebizitzaren ondarearen eraginkortasun sozialari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer eremu jo dira zaharberritzeko lehentasunezko barruti, Nafarroako Gobernuaren laguntzak eta jarduketak areagotzeko?

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuan, izendapenei indar emanik, zaharberritzeko lehentasunezko barrutitzat jotzen dira Iruña, Lizarra, Tafalla eta Tuterako alde zaharrak.

2.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko lehentasunezko barrutiak bultzatzeko, hirigintza-plangintza bereziak eginez, udal arauak bertan sar daitezten?

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak 50 urte baino gehiago izaki zaharberritzeko lehentasunezko barrutietan dauden eraikinei dirulaguntza handiak ematea ezartzen du:

zaharberritzeko lanari dagokion aurrekontu babesgarriaren % 40, hain zuzen; gehieneko dirulaguntza, berriz, 3.000.000 pezeta ingurukoa da etxebizitza bakoitzeko.

Babespenaren eta barruko zaharberritzearen plangintza berezia idatziz jartzeko dirulaguntza ezarrita geratu da aipaturiko foru dekretuan, beti ere zaharberritzeko lehentasunezko barrutietan.

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritze-jarduketaren profesionalizazioa bultzatzearen, eskualde zabalak, auzoak edo eraikin osoak har ditzaten?

Zaharberritzeko lehentasunezko barrutien barruan, aipaturiko foru dekretuak aukera berria ezarri du lehen aldiz, hau da, % 40ko dirulaguntzak zabaldu ditu hainbat alorren artean. Horra alorrak: barne-urbanizazioak, gunee libreen egokitzapena, egoiliarrentzako aparkalekuak, hiri altzariak, hornikuntzak eta kudeaketa-ordainsariak.

Baldintza bakarra hau da: jarduketak partehartze orokor baten barruan egon behar duela, beti ere zaharberritzeko lehentasunezko barrutiei lotuta, eta, dagokion zaharberritze bulegoak izapidea eta txostena alde aurretik emanda. Mota honetako jarduketa orokor eta konplexuak, bai ekonomikoaren bai administrazioaren bai legearen ikuspuntutik, oso-oso interesgarriak dira, eta gainera, kontuan ere izan behar da ezen, zaharberritze bateratuek zaharberritze bakanduek baino kalitate handiagoko emaitza ematen dutela, eta inguru zabalagoetara hedatzen direla; halaber, profesionalizazio eta gestio maila handiagoa ere bada.

4.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritze eragiketen araubide ekonomiko eta finantzarioa babes ofizialeko etxebizitzan (BOE) araubidearekin parekatzeko?

Zaharberritze-lanei buruzko araubideak hainbat ezaugarri berezi baditu ere, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araubidearekin badu antzik; esaterako, ohiko etxebizitza iraunkorrak helburu izatea eta araubide teknikoaren betetze-maila babes ofizialeko etxebizitzan parekoa izatea (landokumentu gisa jada idatzita dagoen araubide aldatuan hala jasota dago-eta).

Babes ofizialeko etxebizitzan finantzaketa-araubidearekin bat egiteko orduan, famili dirusarrerara ponderatuen kalkuloari dagozkion alor eta atalen zehaztapena hartu da kontuan, dirusarrera horietatik eratortzen baita dirulaguntza. 1998ko irailean onetsiko den foru dekretuan, bateratu egiten dira babes ofizialeko etxebizitzan maileguak eta zaharberritzekoak, SMIren halako 2 eta 2,5 bitarteko famili dirusarrerara ponderatuen zatiri dagokionez.

5.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko aurrekontuak ahalik eta ondoen erabil daitezen ohiko bizileku iraunkorretan? Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zaharberritzeko maileguak babes ofizialeko etxebizitzetarakoak bezala subsidiatzeko?

Erroldan oinarriturik bizilekua egiaztatzea da alor horretan egiten den jarduketa; hala ere, kontuan izan behar da ezen, zenbait kasutan, etxebizitza zaharberritu baino lehen ez dela posible bertan bizitzea; beraz, bilekuaren egiaztapena gerorako utzi beharra dago horrelakoetan. Nafarroako Gobernuaren kargura eginiko maileguen dirulaguntza berriztatzean, dagozkion azterketak sistematikoki egiten dira.

Nafarroako Gobernuak 1998ko irailean onetsiko duen foru dekretuan erabat bateratuko dira

zaharberritze-lanei eta B.O.E.ren maileguei dagozkien dirulaguntzak, beti ere errenta-zatiak kontuan harturik, aurreko galderari erantzutean azaldu den bezala.

6.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko obrei dirulaguntza emateko hurrengoan arabera: eraikinen aintzinasuna, erabiltzaileen ekonomi eta famili egoera?

Kontuan izan behar da ezen, aurreko Nafarroako Gobernuak ekainaren 3ko 234/1996 Foru Dekretuan ezarritako egoeraz geroztik (non 1.000.000 pezetatik gorako zaharberritze-lanak, oro har, dirulaguntzarik gabe geratu baitziren), gaur egungo Gobernuak, piskanaka-piskanaka eta atzera egin gabe, jarduketa horientzako dirulaguntza igo egin duela. Abenduaren 24ko 694/1996 Foru Dekretuak, esaterako, dirulaguntza igo egin zuen, aurrekontuaren % 0tik % 22ra bitartean (gehienez ere). Apirilaren 14ko 100/1997 Foru Dekretuak, berriz, aipaturiko dirulaguntza zabaldu zuen % 30era bitartean, S.M.I. delakoaren 2,5 azpitiko dirusarrerara ponderatuak dituzten pertsonentzat eta 65 urtetik gorakoentzat (zaharberritze lanetan sarritan gertatzen baita hori).

Hartaz geroztik, Nafarroako Gobernuak, ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuan, dirulaguntza handiagoak ezarri ditu 50 urtetik gorako eraikinetan egin beharreko jarduketetarako, zaharberritze lehentasunezko eremuetan aurrekontu babesgarriaren % 40rainokoak izan daitezkeenak, edota jarduketak 65 urtetik gorako pertsonen etxebizitzetan egin beharrekoak direnean, edota ezinduek erabiliko dituzten elementu kolektiboak ordenatzea helburu dutenean. Dirusarrerak ponderatzeko koefizienteak B.O.E.renak bezalakoak dira, eta lehentasun batzuk ere badaude, esaterako: familia zenbat eta ugariagoa izan, adinekoak, ezinduak eta, izaera orokorraz, famili diru-sarrerak zenbat eta txikiagoak izan.

7.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak egun diren eskualdeko zaharberritze-bulegoen lana bultzatzeko? Eta Iruña eta Zangoza merindadeetan eskualdeko bi zaharberritze-bulego berri jartzeko?

Gobernuak abenduaren 9ko 363/1997 Foru Dekretua onetsi du, horren arabera bultzatzen baitira Zaharberritze Bulegoak (ORVES) eta diruz lagungarria izan daitekeen pertsonala, bai kantitate mailan bai hornikuntza mailan; gainera, horri esker posible izanen da hiri-aholkularitzarako zerbitzuak bertan sartzea.

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak ORVES delakoan partehartzea bultzatzen du; eta

areago, ORVES delakoak behar-beharrezkoak bilakatzen ditu bai kudeaketarako bai zaharbertze lehentasunezko eremuak izendatzeko; orobat beharrezkoa bilakatzen du aipaturiko eremuetako etxebizitza-multzoen gainean eragina duten jarduketa orokorreari eman behar zaizkien maila handiko dirulaguntzak zehaztea.

Iruñeko eta Zangozako merindadeetako iparraldeko ORVESei dagokienez, hainbat izapide burutu dira eta zenbait udalen aldeko jarrerak ere lortu dira; beraz, 1998ko urrirako, Zangozako

merindadean, herritar kopuru osoaren erdia batu-ko duten adina udal atxikitzea espero da; horrela, dagokion ORVEa aurten bertan osatu ahal izanen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki administrazioekin udal eta foru etxebizitza publikoak sustatzeko bakoitzaren lurralde-eremuan?

Nafarroako Gobernuak elkarlanean ari da lurzoru eta etxebizitza sustatzeko udal ekimenekin: udalei aholkularitza-zerbitzua eman, lehiaketa-epaietan parte hartu, eta oro har, lankidetzaz zabaldu eskaintzen die udalei.

Nafarroako Gobernuak honako aholkua ematen die udalei: daukaten lurzorua erabil dezaten

babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko; izan ere, etxebizitzak prezio onean eskaintzea, gizartearen ikuspuntutik errentagarria izateaz gain, epe luze eta ertainean ekonomiaren ikuspuntutik ere errentagarria baita. Dena den, onartu beharra dago udalek ez dituztela beti honelako aholkuak betetzen, esparru horretan eskumen propioak dituztela baliatuta.

Halaber, udal planak tramitatu artean, Nafarroako Gobernuak ahal duen guztia egiten du, Udalek ahalik eta babes ofizialeko etxebizitza gehien eraiki ditzaten, hori ez baita zaila hiriko gestioarekin batera bideratzea.

Hitzarmen-atalaren barruan, Iruña, Tudela, Berriozar eta Egues udalekin izenpetutako hitzarmenak (Sarriguren barrutirako) adibide ezin hobekak dira.

Bestalde, 1998ko irailean, Foru-Dekretu bat onestea aurreikusita dago, eta dagozkien hitzarmenak behin egin eta gero, gazteentzako alokairuko etxebizitzak sustatzen dituztenei dirulaguntza-maila altuagoa eskaini ahal izanen zaie, errentariak ordaindu beharko luketen alokairua jaisten baldin badiete.

2.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, berriazko udal planeamendua duten aldeetan, zaharbertzeko lehentasunezko barrutiak ezartzeko jarduketaren programazioarekin eta toki entitateen eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin?

Nafarroako Gobernuak ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretua onartu du, zeinean zaharbertze-eremutzat jotzen baitira Iruña, Tude-

la, Lizarra eta Tafallako alde zaharrei dagozkienak (dagoeneko izenpetuta). Eremu berriak izendatzeko baldintzak finkaturik daude: plangintza espezifikoak, udal laguntzak eta zaharberritze-bulegoen partehartzea. Proiektuaren, egitarauaren eta gestio espezifikoaren arabera, dirulaguntza garrantzitsuak emanen dira, bai zaharberritze indibidualen kasuan, bai inguru zabalagoetan egin-beharreko jarduketan kasuan. Orobat ere diruz lagunduko zaio babeste-plangintza berezia eta barne-berrikuntza idatziz jartzeko proiektuari.

Udalen batek lehentasunezko barruti-izendapenak hitzartu dituen albistegia heldu zaigu (Corella, kasu); eta Zaharberritze-Bulegoek beste udal batzuekin izandako elkarrizketen berri ere izan dugu (Cintruénigo, Villafranca, e.a.). Kasu guztietan izan da atzean Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ekina.

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki entitateekin, zuzenean edo VINSAREN bitartez, etxebizitzak eraikitzeke lurren udal ondareak kudeatu eta sortzeko?

Zentzu horretan, Nafarroako Gobernuak eta VINSA enpresa publikoak oso jarrera irekia erakutsi dute toki entitateen ekimenean aurrean; Etxebizitza Planak indarrean iraun artean, VINSA Iruña eta Tudelako udalekin aritu da elkarlanean; esaterako, lurzoruen eskuhartzeak, jatorriz udal horiek baitziren, Tudelako alde zaharrekoak kasu (horre-

txen barruan sarturik daude dagozkion ondorioetarako izenpetutako Lankidetzak-Hitzarmenak).

Etorkizunean, lankidetzak hori beste udal batzuen artean bultzatzea aurreikusita dago; adibidez, Tafallako udalarekin hainbat elkarrizketa izan dira, mota horretako ekimenak bultzatzeko.

4.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioarekin edo Estatuko ente edo enpresekin, etxebizitzetarako erabil daitekeen estatu-ondarea kudeatu, eta hala bada, erosteko?

Estatuarekin eginiko elkarlanari esker, gaur egun babes ofizialeko 204 etxebizitza eraikitzen ari dira San Jorge auzoan, Iruñean; etxe horiek eraikitzeke eskubideak Administrazio Zentralak saldu zizkion Foru Administrazioari. Gaur egun, 1998ko irailean, San Jorge Barrutian, Iruñean, 5.000 m²ko lur eraikigarria estatuari erostea erabaki du Nafarroako Gobernuak.

Ildo horretatik Nafarroan lurzorua eraikigarriak dituzten enpresekin eta Administrazio Zentralarekin kudeaketak egiten jarraitzea aurreikusita dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak laguntzek eskaintzan eta eskarian duten eraginaren ebaluazio jarraitua aurten gartzeko, eskura diren aurrekontu-baliabideen eraginkortasunik handiena lortzearen?

Nafarroako Gobernuak sistematikoki ebaluatzen du laguntzek etxebizitzaren eskaintzan eta eskarian duten eraginaren eboluzioa; hona hemen aztergai izaten dituen alderdiak:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan eskuragarri dagoen informazioa

– Etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoek ematen duten informazioa.

– Etxebizitza-sustatzailak eta euren elkarteek ematen duten informazioa.

2.- Zer ondorio atera daiteke aipatu ebaluaziotik? Nafarroako Gobernuak ekimenen bat aurreikusitako aipatu ebaluazioaren konklusioen ondorioz?

Laguntzen eraginei buruz ateratako behin-behineko ondorioak ondoko hauek dira:

1998ra bitarte, Iruñerrian, eskariak erabat bete du B.O.E.ren eskaintza (dirulaguntzak neurri batean oso kontuan izan gabe); dena den, 1998an, egoerak onera egin du, posible baita eraikitzen ari diren eraikinetan babes ofizialeko etxebizitzak saldu gabe aurkitzea.

Nafarroako gainerako tokietan, dirulaguntzekiko menpekotasuna handiagoa dela ikusi da, etxebizitzaren eskaintza handitzeko orduan.

Mailegu hipotekarioen interes-tasak behera egin badu ere, diruz lagunduriko mailegu koalifikatuen eskaintza ez da eten, mailegariak lasaitasuna bilatzen baitute epe ertain eta luzerako.

Etxebizitzak zaharberritzeko orduan, menpekotasun handia dagoela ikusi da, dirulaguntza bidez heltzen den laguntzari dagokionez; esaterako, dirulaguntzen zenbatekoa askotan erabakigarria izaten da, zaharberritze lana egiteko ala ez.

Orain arte onetsi diren etxebizitza-laguntzak berritzatzeko foru dekretuak, baita Nafarroako Gobernuak hilabete honetan bertan onestea aurreikusita daukan foru dekretua bera ere, neurri batean, dirulaguntzen etengabeko eraginei buruzko balorazioaren ondorio dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Herritarraren interesak aintzat hartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak herritarraren interesak aintzat hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Herritarraren interesak aintzat hartzeari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak herritarrari laguntzeko jarduerak taxutzeko, dituen eskubide eta betebeharrei eta eraikuntzari buruzko informazioa ematea xede dutenak batez ere, orobat galdera eta kexuei arreta egitea?

Herritarrei laguntzeko, etxebizitza arloko informazio eta aholkularitza juridikoko zerbitzua esleitu ditu lehiaketa publiko bidez Nafarroako Gobernuak.

Zerbitzu hau Iruña, Tuter, Lizarra eta Donezteben jarri da abian.

Informazioak eta aholkularitzak, batez ere ondoko gaiak jorratzen ditu:

1.- Errentak igo eta gaurkotzea (alokairuak gaurkotzeko kalkuluak, errenta zaharrak birbalorizatzea eta abar)

2.- Hiriko alokairuei buruzko kontsultak; betebeharren ondorioetarako, egin beharreko obren, premiazko obren eta hobekuntza-mailako obren artean bereizteko irizpideak (bai errentatzaileen zat bai errentarientzat).

3.- Jabetza horizontalei buruzko kontsultak, besteak beste: elementu komunetan egin beharreko obrak, partehartze kuotak, komunitateko estatutuak interpretatzea, egin beharrezkotzat

edota hobekuntza mailakotzat jotzea obrak, arkitektura-trabak kentzeko obrak, obra mota bakoitzak dituen legezko ondorioetarako.

4.- Hiri jabetzari buruzko kontsultak, bai zibil-arloan (gehiengoaren edo aho-batezkotasunaren beharra; finketako kargak edo aldaketak erregistroan idatziz jartzeko beharra), bai administrazio-arloan (obrak egiteko baimenaren beharra, erabileraren baimenarena, irekitzeko baimenarena).

5.- Etxebizitzak eskuratzeko kontrataturiko maileguei buruzko kontsultak, horietako klausula zalantzarriak eta abar.

Interesatuak (pertsonek, auzo-komunitateek eta abarrek) etxebizitza kontuetan egindako kontsultak ahoz erantzutean datza zerbitzu hau. Batzuetan, erantzunak idatziz ematen dira aspektu zehatzei buruz, interesatuak hobeto uler ditzan, batez ere, errenta-igoera eta gaurkotzeen kasuan.

Doako zerbitzu hau nortzuek erabil dezaketen: Nafarroan bizi direnek eta foru-azotartasuna dutenek, bai eta Nafarroan etxebizitzaren baten jabe direnek edota errentan daukateneke ere, foru-azotartasuna ez izan arren, baldin eta haien kontsultak zerikusia badu beraienak diren edo erabil-tzen dituzten edo izateko bidean dauden etxeekin.

Bestalde, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko bulegoetan zuzenean jasotzen dira babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu edota erabiltzeari buruzko informazioa, kexak eta salaketak. Herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko, hain zuzen, hainbat hobekuntza-lan burutu da Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiko bulegoetan, batez ere jendeari harrera egiteko lekuetan.

Halaber, “300 egun” egitaraua administrazio-mailan arindu asmoz, “aurretiko zita” antolatu da departamentuko teknikariei kontsultak egiteko.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zuzeneko zerbitzuak deskontzentratu eta eskualdeko zaharberritze-bulegoen jarduketa bultzatzeko, bizigarritasun-zeduletan, eta abar? Eta aipatu bulegoen arreta Nafarroako gainerako tokietara hedatzeko?

Nafarroako Gobernuak abenduaren 9ko 363/1997 Foru Dekretua onetsi zuen, zaharberritze-bulegoen finantzaketa arautzen duena; horri esker, Foru Komunitateak diruz lagundutako giza-

baliabideen kopuruak gora egin du eta hiri-aholku-laritzako zerbituza zabaldu ahal izan da.

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak protagonismo handiagoa eman die bulego horiei, batez ere hainbat jarduketa prestatzeko orduan; horra jarduketa horietariko bi: zaharberritzeko lehentasunezko barruti-izendapenak eta bertan egin beharreko ekimenak partehartze bateratuen bidez.

Bizigarritasun-zedulak tramitatzeke gaiari dagokionez, horiek eman baino lehen zaharberritze bulegoak arduratzen dira ikuskapenak egiteaz, hala nola ondorengo jarraipena egiteaz ere, hala egitea beharrezkoa baita etxebizitza kazkarrentzako bizigarritasun-baldintzak lortu nahi direnean.

Gaur egun, Iruña, Tuter, Tafalla eta Lizarran daude horrelako bulegoak.

Zaharberritze bulegorik oraindik ez daukaten Nafarroako lekuetan horiek zabaltzeko hainbat ekimen burutu da; hona lekuak: Iruñeko merindadea eta Zangozako merindadea.

Iruñeko merindadearen iparraldean, Bertizen, bilera bat izan zen. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zerbitzuetako zuzendariak eta udal horietako alkateek parte hartu zuten bertan. Horren ondorioz, hainbat izapide individual egin dira; baina, hala eta guztiz ere, bulegoa abian jartzeko adina atxikipen ez da lortu, hori lortzeko asmoak zutik badirau ere.

Zangozako antzinako merindadearekin nolabait bat datozen inguruetan, hainbat udalen atxikimenduak lortzen hasi dira; eta gure ustez, herritarren % 50etik gora bil daitezke irailean edo urrian. Beraz, aurtan bertan espero dugu Etxebizitza eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoa zabaltzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---